



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko apirilaren 17an

34 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—2001-2003 toki azpiegituren hiru urteetarako planaren Foru Lege proiektua (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Familia-bitartekotzari buruzko Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurketua (11. or.).

—Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Lege proposamena. Proposamenaren defentsaz arduratuko diren foru parlamentariak izendatzeko arauak (18. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Jabeldura, hizkuntz politikari buruz Nafarroako Gobernuak zer jarrera eta zer asmo duen jakiteko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (19. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Eskola Kontseiluak ezagutarazteko eta sentibilizatzeko kanpaina bat presta dezan, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (21. or.).

—Mozioa. Horren bidez, polizia nazionala Nafarroako Unibertsitate Publikoan bortxaz sartu izana salatzen da, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua (21. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Familiaren Zuzendaritza Nagusia sor dezan, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (22. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behar adina argibide eman diezaien euren filiazioa ezagutu nahi duten pertsona eta familiei, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztua (24. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da arau jakin batzuk aplikatu ditzan Ikusentzuzkoen Kontseilua eratzean, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (25. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Ezgaitasun fisikoren batek jotako eta fisioterapia-tratamendua behar duten haurren eskolatzeari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (27. or.).
- Adimen-osasuneko sarean artatutako 18 urtetik beherakoei buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (28. or.).
- Orkoiengo saihesbideari buruzko galdera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina (29. or.).
- Errezuko arrain-haztegiaren aurkako zehapen espedienteari buruzko galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina (30. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1 artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko apirilaren 3an hartutako erabakiaren bidez, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Toki Administrazioako Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat** irekiko da, **2000ko maiatzaren 11ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarietako artikuluei buruzko emendakinak aurkeztu ahalko dituzte.”

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 61. artikulua xedatzen du Nafarroako Gobernuak, hartarako Foru Lege bat eginik, Inbertsio Planak finkatuko dituela toki entitateekin lankidetzak ekonomikoan aritzeko tresnatzat, eta plan horien helburu nagusia izanen dela nahitaezko udal zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitate osoan egon daitezzen bermatzea.

Orobat, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikulua 4. idatz-zatian ezartzen du –Inbertsio Plana finkatzeko Foru Legea oinarri eta onetsiko diren bategite planekin bat– finkatu behar dela nola partitu Toki Entitateek Nafarroako Zergetan Parte Hartzeko Fondoari dagozkion kapital transferentzietarako aurreikusi den diru kopurua.

Foru Lege honen helburua da aipatu legeok Nafarroako Gobernuak jarduteko eskatzen duten arau-saila sortzea, Nafarroako Gobernuari baitagokio Planaren lerro nagusiak eratzea eta bai haren programazio eta plangintza lerroak ere, Toki Araubiderako Foru Batzordearen iritzia aurrez entzunik.

2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planak, Nafarroako Foru Komunitateak lehendik probatutako esperientziak oinarri harturik, honako osagaiak ditu: plan zuzendariak, toki programazio-ko lanak eta toki garapeneak.

Plan zuzendariak, Toki Administrazioen arlo hauetako jokaeraren koherentzia bermatu beharrragatik sortzen dira: ur hornidura, Ibaien saneamendua eta hondakin uren araztea eta hiri hondakinak nahiz hondakin berariazkoak bildu eta tratatzea; gai horiek, izan ere, nahitaezko dute eskumenak koordinatzea, Toki Entitateen intere-

sak haratagokoak baitira eta Foru Komunitateko Administrazioak lurraldearen antolamenduko eta ingurugiroko gaietan dituen eskumenekin jotzen baitute.

Foru Lege honek esku ematen dio Nafarroako Gobernuari Toki Administrazioak arestian aipatu gaietan duen jokaera koordinatzeko, toki entitateek nola obra planifikatuetan nola toki programaziokoetan aukera izan dezaten beren eskumenpeko zerbitzu eta jarduerak plan zuzendarietako aurreikuspenen barrenean planifikatu eta antolatzeko ahalmena erabiltzeko.

Lege honen bidez zehaztu egiten da zer diru kopuru zor diren 2001-2003 hiru urtekorako kapital transferentzia gisa, zer prozedura eta irizpide izanen diren inbertsioak hautatzeko eta zer araubide ekonomiko eta finantzarioa izanen duten.

1. artikulua. Hiru urtetarako Plana.

1. Toki azpiegituren hiru urtetarako Planaren osagai dira 2001-2003 bitarteko hiru ekitaldietan zenbat ere obra eginen diren Nafarroako udalen eta kontzejuen eskumenpeko zerbitzuei dagozkien azpiegituretan, Foru Lege honetan aipatzen diren programaziolari, araubide ekonomiko finantzarioari eta kudeaketa erregimenari buruzko baldintzen arabera.

2. Toki azpiegituren hiru urtetarako planak honakoetan aurreikusten diren inbertsioak ditu osagai: a) Plan Zuzendariak, b) Toki Programazioa eta c) Toki Garapena.

2. artikulua. Plan Zuzendariak.

1. Nafarroako Toki Entitateetan behar den koordinazioa segurtatzeko, komunitatearen intereseko, eta, beraz, udalez gaindiko intereseko deklaratzeko dira entitate horien eginkizun eta jarduera hauek:

- a) Goi presioko uraren hornidurak, plan zuzendarian sartuak.
- b) Ibaien saneamendua eta araztea.
- c) Hiri hondakinak eta hondakin berariazkoak bildu eta tratatzea.

2. Nafarroako Gobernuak koordinatu egiten du toki entitateek gai horietan duten jokaera, kasurako plan zuzendariak sortuz. Plan horiek aginduzkoak izanen dira eta Foru Lege honetan aipatzen diren baldintza eta mugen arabera.

3. Goi-presioko ur hornidurarako plan zuzendarian honako alderdiak jorratzen dira: erabili beharreko baliabideak zein diren eta nola partitu behar diren, ura hartzeko eta erregulatzeko lanak, ur hodiak, ura tratatzeko edo potabilizatzeko lanak

eta ur biltegiak. Plana garatzeko planek finkatuko dute, hala behartzen bada, zein ekintza eremutan bilduko diren udalak eta zein soluzio tekniko hartuko diren kasuan-kasuan.

4. Ibaiak araztu eta saneatzeko plan zuzendariak honakoak hartzen ditu aintzat: zein aterahodiren bidez gaur egun ur-ibilguetara isurtzen diren hondakin-ur urbanoak bildu eta araztegietera eramanen diren, eta bai araztegiak berak eta ondoren ur ibilguetara isurtzeko hodiak ere. Planak, bestalde, egin beharreko obrak zehaztu eta programatzen ditu.

5. Hiri hondakinentzako plan zuzendariak eta hondakinak kudeatzeko plan integratuak honakoak hartzen dituzte aintzat: materia organikoaren eta material inerteen tratamendua ebazteko behar diren baliabideak, materia organikoa eta paper/kartoia biltzea, puntu garbiak ezartzea, obra-hondakinak entregatzeko puntuak, hondakin-degiak ixtea eta behar diren baliabide osagarriak. Bi planek finkatzen dute zein ekintza eremutan bildu behar diren udalak eta zein konponbide tekniko hartu behar diren kasuan-kasuan.

3. artikulua. Toki programazioko inbertsioak.

1. Honako obra hauek dira toki azpiegituren hiru urtetarako planaren toki programazioko inbertsioen hartzaile: Foru Lege honetan ezarri diren hautapen irizpideak aplikaturik, Foru Lege honetan aurreikusten diren dirulaguntzak eman zaizkien eta bertan ezartzen den kudeaketa araubidea segitzen duten obra guztiak.

2. Honakoak dira toki programazioko inbertsioak: goi presioko ur hornidurari buruzko baina Plan Zuzendarian sartu gabekoak, ura banatzeko eta saneamendurako hiri sareak, elektrifikazioak, herri argiteria, zoladura, udal eraikinak, kanposantuak eta toki bideak.

3. Hauxe aditzen da ura banatzeko hiri sareak: erregulazio biltegiak eta etxeetako hartuneak eta hango kontrol eta neurtze aparatuak lotzen dituztenak; hauxe saneamendu sare lokalez: etxeke isurkinak eta hiri zoruan eroritako euri ura hartu-neetatik araztegiara baino lehenagoko aterahodi orokorreraino eramaten dituzten hodiak.

4. Elektrifikazioetan sartzeko dira argindarra garraiatu, eraldatu eta banatzeko instalazioak behar bezalako zerbitzurik edo batere zerbitzurik ez duten jendegune edo eremuetan, eta bai kasuko erregelamendu eta jarraibideetako xedapen eta arauak betetzeko behar diren instalazio osagarriak.

5. Herri argiterian sartzeko dira hiri bide publikoak argitzeko instalazioak.

6. Zoladura obretan sartzan da trazadura berriko hiri bideak zolatzea, oraingo hiri bideetako zoladura hobetzea eta hiri lurzoru sendotuan eragina jasaten duten instalazioak lehengoratzeara.

7. Udal eraikinen kontzeptuan sartzan dira oin berriko eraikinak eraikitzea eta oraingoak eraberritzeko lanak, udal nahiz kontzejuen administrazio egoitzak kokatzekoak, eta bai mankomunitateen eta nahitaezko zerbitzuetarako elkarteak eta egin-kizun administratiboetan aritzeko eratzen diren elkarteak.

8. Kanposantu obretan sartzan dira eraikuntza berriak nahiz zabaltze edo eraberritze obrak baldin zerrakurei, barne nahiz kanpoko urbanizazioari, azpiegiturei eta eraikin osagarriari eragiten badiete. Ez dute finantziatorik jasoko hil-zulo, panteoi, mausoleo eta errauste nahiz erretze instalazioetako obrek.

9. Hauxe aditzen da toki bideetako obrak: toki jenedunetara iristeko landabideak egin, zolatu, egokitu, hobetu eta zabaltzeko obrak, eta nahitaezko udal zerbitzuekin lotuta dauden toki dotazioak.

4. artikulua. Toki garapena.

Toki garapenean sartzan dira toki entitateek, beren oldez, turismo eta produkzio sektoreak bul-tzatze behar diren ekipamendu eta azpiegituretan egin behar dituzten inbertsioak.

5. artikulua. Hiru urtetarako planaren finantzabidea.

1. Toki azpiegituren hiru urtetarako plana apor-tazio hauen bidez finantzatu da:

a) Nafarroako Toki Entitateek Nafarroako Zer-getan Parte Hartzeko Fondoak, Nafarroako aurre-kontu orokorretan kapital transferentzia gisa jasoa.

b) Beste erakunde publiko nahiz pribatuen apor-tazioak.

c) Toki entitateen baliabideak.

d) Kreditu eragiketak.

2. Beste erakunde publiko nahiz pribatuetatik heldu diren apor-tazioak bateratzen ahalko dira 1. zenbakian aipatzen diren beste apor-tazioekin.

Hala ere, apor-tazio horiekin inbertsioaren kos-tuko ehuneko ehun gaintzen bada, ehuneko ehun horrez goitiko zatian gutxituko da Nafarroa-ko aurrekontu orokorretan oro har jasotzen diren apor-tazioetatik pagatu beharreko diru kopurua.

6. artikulua. Toki Entitateek Nafarroako Zer-getan Parte Hartzeko Fondotik pagatu beharreko apor-tazioak.

1. Toki azpiegituren hiru urtetarako planaren-tzako apor-tazioak, Nafarroako aurrekontu oroko-rretan kapital transferentziatzen jotzen direnak, urte bat baino gehiago hartzen dituztenak izanen dira, honela:

	2001	2002	2003	Guztira (pezetak, milioitan)
A) Plan zuzendariak				
Azterlanak	10	10	10	30
Goi presioko ur hornidura	1.166	1.166	1.166	3.498
Ibaiak araztu eta saneatzea	700	700	700	2.100
Hiri hondakinak:				
- Tratamendua	125	125	460,8	710,8
- Bilketa	185	185	139,5	509,5
- Iruñerriko Mk. arekiko hitzarmena	-	224,1	-	224,1
Berariazko hondakinak	-	-	300,6	300,6
Milioiak, guztira				
Plan Zuzendarietan.	2.186	2.410,1	2.776,9	7.373
B) Toki programazioko inbertsioak				
Goi presioko ur hornidura				
Plan Zuzendarietan sartu gabekoa	15	15	15	45
Ur hornidurako eta saneamenduko sare lokalak.				
	1.300	1.300	1.300	3.900
Elektrifikazioak	25	25	25	75
Herri argiteria	225	225	225	675
Zoladurak	875	875	875	2.625
Udal Eraikinak	200	200	200	600
Kanposantua	100	100	100	300
Toki bideak	100	100	100	300
Milioiak, guztira				
Toki programazioan	2.840	2.840	2.840	8.520
C) Toki garapena				
Toki garapena	40	40	40	120
GUZTIRA.....	5.066	5.290,1	5.656,9	16.013

2. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du gehienez ehuneko hamar bat erreserbatzea Hiru urteko planarentzako apor-tazioetatik, ezinbesteko ekintzei edo ezin igarritako gorabeherari, salbues-penezko araubidearen finantzaziorari edo Europa-ko diru bakarra ezartzeak sortzen dituen gorabe-herari aurre egiteko.

3. Europako Batasunak emendiozko finantzaketa ematen duen kasuetan, plan osagarri bat ere eratuko da, finkatzeko zein azpiegitura inbertsio, Foru Lege honek aipatzen dituenetatik, gai diren Batasuneko fondoak eskatzeko.

Plan osagarri horretan sartzan diren inbertsio-ek bete behar dituzte Europako araudiak hona-

koen gainean jartzen dituen baldintzak: finantzaketa jasotzeko gai diren eremuak, dokumentazioa tramitatzeko epeak, aportazioaren portzentajea, pagamenduen egutegia eta zein ere alderdik kontra eginen baitio hiru urtetarako planaren araudia-ri.

Toki programazioko obretarako, Europako Batasunaren fondo aportazioa Foru Lege honetako irizpideen arabera tokatzen den finantzaketa ehunekoraino osatzeko, hasiera batez hiru urtetarako planerako aportazioen ehuneko bat erreserbatzen da, eta zilegi izanen da, behin benetako premiak ezagutuz gero, ehuneko hori zabaltzea edo planaren oro harko aportazioen mesedetan itzultzea.

Toki programazioko obrak, Foru Lege honetako 8. artikuluan ezartzen denaren arabera izandako kalifikazioei jarraikiz lehenetsiko dira.

4. Hiru urtetarako planarentzako aportazioen banaketa, artikuluko 1. puntuan jaso den bezalakoa, ekitaldi bakoitzeko Nafarroako aurrekontu orokorren programan agertuko da jasorik.

Zilegi izanen da Europako Batasunak emendiozko laguntza ematen dien partidak handitzea.

5. Nafarroako Gobernuak, toki entitateek planean hautatu eta lehenetsi diren obrak gauzatzeko ezartzen duten lehenetsunaren arabera, zilegi izanen du gehienez ehuneko hamar zabaldu ala gutxitzea hiru urtekoaren ekitaldi bakoitzerako aurreikusitako diren kopuruak. Hartara, moldatu egin beharko ditu ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetan jasota dauden kopuruak, Nafarroako aurrekontu orokorretan hiru urtetarako planari egotzitako kopurua, gutxitza, berbera izateko moduan.

6. Kapital transferentziak egiteko fondoaren baliabideak ekitaldi ekonomiko batean erabiltzen ez direnean hurrengoari erantsiko zaizkio ekitaldi horretan aplikatzeko.

Kreditu erantsiak ez badira aplikatzen eranste horri baimena eman zaion ekitaldian, hurrengo ekitaldiko aurrekontuen gastu egoerari erantsiko zaizkio, ekitaldi horretan aplikatzeko.

Emaitzen kontuetan aurrezkirik izaten bada, aurreko ekitaldietako obretan izandako gastu-soberakinak finantzatzeko erabiliko dira. Hala ere, aurrezki horien osotarako kopurua 150 milioi pezeta baino gehiagokoa bada, zilegi izanen da horrekin obra berriak finantzatzea, leheneste irizpide berberekin eta 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planean izandako kalifikazioen hurrenkera begiraturaz.

Fondo horretako dirusailen artean eta aurrekontuaren ekitaldian zilegi izanen da aurrekontuak programaren helburuak iristeko behar den bezala moldatzea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1989 Foru Legearen 39. artikuluko 3. idatzatiak ezartzen duenarekin bat.

7. Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari 2001-2003 hiru urtekoaren ekitaldi bakoitzean, haratago joan gabe, hurrengo ekitaldiaren ehuneko 50 eta hurrengoaren ehuneko 25 konprometitzea.

7. artikulua. Obrak sartzeko baldintzak.

Azpiegitura obrak hiru urtetarako planean sartuko badira, honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Hasi eta burutu gabeko obrak izanen dira, salbu eta Foru Komunitateko Administrazioak espreski hasteko baimena eman dienak.

b) Kasuko herriaren hirigintza planeamenduaran araberako obrak izanen dira.

c) Toki entitateen eskumen alorraren barneko obrak izanen dira edo erakunde eskudunak delegatuta bere gain hartutakoak. Kontzejuen kasuan, gainera, zilegi izanen da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 39. artikulua 2. zenbakian xedatzen denaren ondorioz bere gain hartutako obrak sartzeari.

8. artikulua. Toki programazioko eta toki garapenerako obrak hautatu eta lehenesteko prozedura.

1. Toki entitateek programatu beharreko azpiegitura obrak hiru urtetarako planean sartzeko, hautatze eta leheneste formula hau ezarriko da:

$$HLK = 0,77 \text{ ADI} + 0,10 \text{ ADO} + 0,065 \text{ IE} + 0,065 \text{ KTB}$$

Honela irakurririk:

HLK: Hautatze eta Leheneste Koefizientea

ADI: kasuko toki entitateak hiru urtetarako planean sartu beharreko obrari dagokionez duen Azpiegitura Defizit Indibidualaren adierazlea da, eite bereko beste azpiegituren aldean.

ADO: Toki entitateak duen Azpiegitura Defizit Orokorra adierazten du, hiru urtetarako planak aurreikusten dituen beste azpiegituren aldean (toki bideak eta kanposantuak kenduta) zenbakarria dena.

IE: Inbertsioaren Errentagarritasuna biztanleko.

KTB: Kapital Transferentzien Bolumena, Toki Administrazioiko Departamentuak 1984-2000 aldian aitortu dituenak.

2. Aurreko zenbakian definitu diren koefiziente guztiek 0tik 10erako balioak izanen dituzte. ADI koefizientea aldagai diskretoa da, zeinaren balioak 1, 4, 7 eta 10 izanen baitira defizit tamainaren arabera.

3. Toki garapeneko obrak hautatu eta lehenesteko, honako formula erabiliko da:

$$HLK = PST + LP + LT$$

Honela irakurririk:

HLK Hautatze eta Leheneste Koefizientea

PST Produkzio Sektorearen Titulartasuna

LP Sortu edo mantendu beharreko Lanpostuak

LT Langabezia Tasa

4. Aurreko idatz-zatietan definitu diren koefizienteak kalkulatzeko prozedura erregelamendu bidez finkatuko da.

9. artikulua. Inbertsioen araubide ekonomiko finantzarioa

1. Toki azpiegituren hiru urtetarako plana finantzatzeko aportazioen araubidea honako hau izanen da:

a) Plan zuzendariak:

– Goi presioko uraren hornidura: % 90

– Ibaiak araztu eta saneatzea: % 80

– Hiri hondakinak:

. Bilketa: % 70

. Tratamendua: % 90

b) Toki entitateen programatutako azpiegitura lanak:

– Goi presioko ur hornidura, plan zuzendarie-tan sartu gabekoa: % 80-100

– Hornidura sare lokalak: % 60-80

– Herri argiteria: % 60-80

– Zoladura: % 60-80

– Elektrifikazioak: % 60-80

– Udal eraikinak: % 60-80

– Kanposantuak: % 60-80

– Toki bideak: % 60-80

c) Toki garapena:

– Toki garapena: % 40-60

2. Aportazioaren ehunekoak beti aurreko zenbakian finkatu diren mugen barrenean egonen dira.

3. Ehuneko horiek graduatzeko, udal eta konzejuen toki programazioko eta toki garapeneko obra bakoitzerako, honako formula erabiliko da:

$$P = \% 40, \%60, \%80 + \% 11 \times EEK + \%9 \times AF$$

Honela irakurririk:

E: aportazioaren ehunekoa.

40, 60, 80 da azpiegitura bakoitzeko gutxiene-ko ehunekoa.

EEK: Egoera Ekonomiko-finantzarioaren Koefizientea da. Toki entitate bakoitzerako kalkulatu-ko da, Zorduntze Teorikoaren Maila (ZTM) eta Zorduntze Mugaren (ZM) arteko emaitza erabiliz.

AF: Ahalegin Fiskalaren koefizientea da. Toki entitate bakoitzerako kalkulatu-ko da, honela: ordainarazketa horrek (legezko tasa handienak erabiliz) ekarriko lukeen diru sarrerari dagokion lurralde kontribuzioagatik likidatu diren eskubideen eta hiri ondasunen kasuan Merkatu Balioaren estimazioen arteko emaitza harturik.

4. EEK koefizienteak 0-1 bitarteko balio bat hartuko du eta AF-ek berriz 0,7-1 bitartekoa. Bi koefizienteak kalkulatzeko, 1999ko aurrekontuak likidatzeko espedienteak hartuko dira oinarri, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 227.2 artikulua agintzen duenez.

Erregelamenduek ezarriko dute koefiziente horiek nola kalkulatu.

5. Mankomunitateen kasuan, aportazioen ehunekoa (P) kalkulatzeko formula honako hau izanen da:

$$E = \% 40, \% 60 + \% 20 \times EEK$$

EEK definitu eta kalkulatzeko, artikuluko honetako 2. puntukoa hartuko da aintzat.

Hala ere, aportazioaren ehunekoak (E), Foru Lege honetako 9. artikuluko 1. puntuan ezarri diren banden batez bestekotik gorako balioa izanen du beti.

6. Aportazioaren ehunekoa (E) behin betikoa izanen da, EEK eta AF horiek aldaezinak izanen baitira toki entitate bakoitzerako hiru urtetarako plana garatzen den denboran.

7. Salbuespenez zilegi izanen da artikuluko honetako 2. idatz-zatiko formularen arabera kalkulatu den aportazio ehunekoa handitzea plan zuzendariei eta toki programazioari dagozkien

obretako oinarri lagungarriaren % 100 iristeraino, baldin eta kasuko toki entitatearen gaitasun ekonomikoa azterturik ezinezkoa izan bada eta entitate horrek araubide horretan sartzea eskatu badu.

Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez ezarriko du zein irizpideren arabera gobernatuko den eta araubidean sartuko diren toki entitateen zerrenda argitaratuko.

8. Erregelamendu bidez ezarriko ere dira zenbat neurri behar diren toki entitateei plan zuzendarien osagarritzko finantzaziorako tokatzen zaien aportazioak jasotzeko, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean edo hark subrogatuta bururatzen direnean.

10. artikulua. Prozedura

A) Plan zuzendariak

1. Plan zuzendarietan sartutako obrak kasuko zerbitzua ematen den toki entitateek egin beharko dituzte, non eta elkarlanean edo subrogatuta egiten ez diren. Horrek ez ditu ezertan galarazten kasu hauetan toki entitateei tokatzen zaien finantzazio obligazioak.

2. Toki entitate bati plan zuzendarietako aginduek inbertsioak egiteko edo zerbitzuak ustiatzeko eginkizunak sortzen badizkiote, entitate horrek zilegi izanen du eginkizun horietarako Nafarroako Gobernuaren lankidetzara eskatzea.

3. Plan zuzendarietako eginkizunak egotzi dizkieten toki entitateei aurreikuspenak bururatu ezina sortzen bazaie edo berek beren oldez ez badituzte betetzen, Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du eginkizun horiek subrogazioz bere gain hartzea. Subrogaziozko egintza horretarako aurrez Toki Araubideko Foru Batzordearen txostena beharko da.

B) Toki programazioko eta toki garapenerako inbertsioak

1. Toki entitateek Foru Komunitateko Administrazioari beren azpiegitura beharren gainean eskaera egin diotelarik, Administrazioak Foru Lege honetan ezarri diren hautatze eta leheneste irizpideak aplikatuko ditu eta argitaratuko du obra horiek eta haien HLK hiru urtetarako planean hasiera batez sartzea.

2. Kasuko toki entitateek sarrera hori berretsi beharko dute eta obrak bururatzeko plan finantzarioa aurkeztuko. Bi mila biztanletik gorako toki entitateek, horrez gain, beren osotarako inbertsioen hiru urtetarako plan bat ere aurkeztu beharko dute, bertan sarturik Foru Lege honetan aurreikusten diren diru aportaziorik hartzen ez dutenak,

eta horrekin batera haien osotarako plan finantzarioa ere bai.

3. Aipatu dokumentazio hori ikusirik, Nafarroako Gobernuak organo eskudunak aztertuko du toki entitateek behar adinako gaitasun finantzarioa duten inbertsio horiek egiteko. Ezinbesteko baldintza izanen da entitate horien bideragarritasun ekonomikoa planeko obrak behin-behinekoz sartzeko, hala tokatzen bada.

4. Bideragarritasunik atzeman ez zaien toki entitateen kasuan, epe bat irekiko da toki entitate horiek beren gaitasun finantzarioa molda dezaten planean sartu beharreko inbertsioa edo finantzazio bide alternatibo bat aurkeztu, dela emendiozko baliabideak hartara jarriaz edo salbuespeneko araubidean sartzea eskatuz.

5. Erregelamendu bidez ezarriko da zer baldintza bete beharko diren epeari, dokumentazioari, proiektuen aurkezpenari eta hiru urtetarako plana behin betikoz sartu eta bururatzeko beste baldintzei dagokionez. Finkatuko ere da zer kasutan eta zer prozeduraren bidez gertatuko den hiru urtetarako planaren eskubide ekonomikoa galtzea.

11. artikulua. Planaren kudeaketa.

1. Toki entitateei dagokie plan zuzendarietan aurreikusten diren obrak kudeatu eta zerbitzuak ustiatzea, eta bai toki programazioari eta toki garapenerako dagozkionak ere, ezertan galarazi gabe Nafarroako Gobernuak behar den jarraipena eta kontrola egitea plana egoki aplikatu dadin.

2. Foru Lege honetan aipatzen diren lankidetzara edo subrogazio kasuetan, obrak kudeatzea eta zerbitzuak ustiatzea Nafarroako Gobernuari dagokio.

12. artikulua. Toki entitateen parte-hartzea.

1. Nafarroako toki entitateek parte hartuko dute toki azpiegituren hiru urtetarako planari jarraipen eta kontrol egiten Toki Araubideko Foru Batzordearen bidez.

2. Batzorde horri dagokio aurretiaz nahitaezko txostena egitea plan zuzendariei egiten zaizkien aldaketa eta gaurkotzeen gainean eta bai organo eskudunek aplikazioari buruzko zer ere arazo planteatzen dizkieten, haien guztien gainean ere.

13. artikulua. Urteko balantzea.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri beharko dio, urtero, aurreko ekitaldian toki azpiegituren hiru urtetarako plana garatzearen eta bururatzearen gaineko txostena.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Toki programazioko eta toki garapenerako obrak hautatu eta lehenesteko, toki azpiegituren hiru urtetarako planean sartu baino lehen, aurreko idatz-zatietan ageri diren formula polinomikoak aplikatuko zaizkie entitate interesatuek 2000. urtean deitutako inkesta publikoan egiten dituzten eskaerei.

Bigarrena. Toki azpiegituren hiru urtetarako planaren diru fondoak hobekienik banatzeko, Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du planean partzialki obrak sartzea, beti ere baldin eta hainbat alditan egiteko modukoak badira.

Hirugarrena. Zilegi izanen da behin-behineko planean sartu diren toki programazioko eta toki garapenerako obren zenbatekoa gehienez ehuneko hamar gehitzea hiru urtetarako planean behin betikoz sartzeko diren momentuan.

Laugarrena.

1. Foru Lege honek agintzen duenaren arabera kalkulaturako aportazio ehunekoak, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren bizkarko finantzazioa kalkulatzeko, inbertsio osoari (BEZa barne) aplikatuko zaio baldin obra horietan delako toki entitatea azken buruzko kontsumitzaile bada, hau da, jasandako BEZa kenkari ez denean (ezin bada BEZaren peko tasa edo prezio publikoen bidez zerbitzuen kostua berreskuratu).

2. BEZaren peko inbertsio eta obretan (BEZaren peko prezio edo tasak dituzten zerbitzuei

dagozkienak alegia), jasandako BEZaren kenketa egiteko eskubidea sortzen duetenetan, delako aportazio ehunekoak zerga oinarriaren gainean egiten da (BEZik gabe).

Bigarren kasu horretan, zilegi izanen da soluzio partzialen paguetan, obra bururatuaren ziurtagiriei dagozkienetan, aurrerakin gisa sartzea haie-tako bakoitzaren BEZa bider finkatu den aportazio ehunekoak. Ziurtagiri horiekin batera kasuko fakturak ere aurkeztu beharko dira beti.

Nafarroako Gobernuak, Foru Lege hau garatzeko erregelamenduetan, soluzioei dagokien eta osotarako aportazioa ordaintzen den partean, kontuan hartu beharko du aipatu BEZaren aurrerakin horiek ondoren erregularizatzeko.

3. Toki entitate batek ekitaldiko BEZaren deklarazioetan bere aldeko saldoa agertzen badu, kopuru hori jasoko dute Nafarroako Zerga Ogasunetik, zeinak behar den likidazioa egiten duen hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoari dagokion deklarazioa aurkezteko epea bukatu baino lehen (likidazioa hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoaren deklarazioan eginez), nahiz eta ekitaldi horretako hiruhileko deklarazioetako batean saldoa Nafarroako Zerga Ogasunaren aldekoa izan.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Familia-bitartekotzari buruzko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak familia-bitartekotzari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Familia-bitartekotzari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Familia-bitartekotzari buruzko Foru Lege proposamena

Honako Foru Lege proposamen honek gatazkak ebazteko metodo alternatibo berri bat bideratzen du: familia-bitartekotza, hain zuzen ere. Instituzio hori honako honetan datza: aldeek eskatu eta onartu duten hirugarren pertsona inpartzial eta aditu batek esku hartzen du, bere ekimenez nahiz agintari judizial edo administratibo baten ekimenez, eta helburu du ezkontza-auzia ebaztearen ikuspegitik aldeei akordio gogobetegarriak lortzen laguntzea.

Jardunbide berri honen bidez, Estatu guztietan izan den ezkontza-auzien ugaritze izugarriari irtenbidea aurkitu nahi zaio; bestalde, ez du inolaz ere eragozten gatazkak modu tradizionaletara joz ebaztea. Horrela uler daiteke familia-bitartekotza-

ren hedakuntza azkarra, dibortzio-kopuruaren gorakadarekin eta horrek dakarren ezkontza-auzien ugaritzearekin eta prozesu-kostu handiekin lotuta.

Herrialde garatuetan arian-arian ugaritzen ari diren baldintzen eta gertakarien ondorioz, familia-bitartekotza errotu eta zabaldu egin da; jakina, kasu bakoitzean ezaugarriak eta ñabardurak ezberdinak dira, baina helburua berbera du beti: epailearen partehartzerik gabe ezkontza-gatazka konpontzea.

Familia-bitartekotzak bikotearen adiskidetzea du helburu nagusi; hala ere, ezkontideen arteko haustura arautzea eta sortzen diren eztabaida guztiei irtenbidea aurkitzea, hala nola guraso-bote-rea erabiltzeari, seme-alaben zaintzari eta bisitei, mantenuari eta ezkontza-araubide ekonomikoak desegiteari.

Familia-bitartekotza erabiltzea nahiko gauza berria da Europako Kontseiluko kide diren estatuetan; irtenbide hori kontuan hartzen hasi da, batez ere, Europako Kontseiluak 1998ko urtarrilaren 21eko R (98) zenbakiko gomendioa kaleratu ondoren. Horren bidez, kide diren estatuak premiatzen ditu familia-bitartekotza ezar eta susta dezaten, horrela auziko alderdien arteko gatazkek gutxitu, adiskidetasunezko akordioak erdietsi eta gurasoen eta seme-alaben arteko harreman pertsonalak mantentzeko. Horren helburua banantzeak eta dibortzioak alderdiei eta Estatuei ekartzen dizkieten kalte ekonomiko eta sozialak murriztea da.

Hainbat Estatutan, Austria, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua kasu, bitartekotza nagusiki erakunde pribatuek eta Estatutik independenteek antolatua da. Bitartekari horiek auzitegien ordezkotza ez badira ere, gizarte laguntzako zerbitzuetan edo gazteria zerbitzuetan bil daitezke, eta ordainsariak alderdiek ordaindu beharko dituzte.

Ingalaterran eta Galesen, Familia Zuzenbideari buruzko Legeak bidea ematen du alderdiek elkarrekin ados erabaki dezaten Estatuak finantzaturiko laguntza judizial bat erabiltzea, betiere baldintza

batzuk betez. Halaber, lege horrek xedatzen duenez, bitartekotza-agentziek, baldin eta Estatuak finantzaturiko bitartekotza eskaini nahi badute, laguntza judizialeko bulegoaren bitartez eskaini behar dute, horretarako baimena lortu ahal izateko. Frantzian, laguntza judiziala eskuragarri dago auzitegiak eskaturiko bitartekotza finantzatzeko.

Gaur egun, hainbat Estatuak –Andorra, Finlandia, Norvegia, Polonia, Eslovenia eta Suediak kasu, eta, zenbait kasutan, Alemaniak ere–, bitartekotza zerbitzuak eskaintzeko erantzukizuna daukate. Estatu horietako batzuetan, erantzukizun hori udalei dagokie, eta, guztietan, doako bitartekotza-zerbitzu bat dago.

Espainiako Estatuan, Valentziako Erkidegoan, Katalunian eta Euskal Autonomia Erkidegoan autonomia gobernuek diruz lagunduriko familia-bitartekotza zerbitzuak daude. Madrilgo Udalean hitzarmenak daukate Abokatuen, Psikologoak eta Laguntzaileen Elkargoekin, bitartekotza-zerbitzuak Haur Zentroen bitartez emateko.

Foru Lege honen bidez, hainbat familia-bitartekotzako Zentro eratuko dira, Abokatuen, Psikologoak, Pedagogoen eta Gizarte Langileen Lanbide Elkargoak eta Foru Administrazioaren beraren partehartzearekin. Jarduera horretako zerbitzu publiko eta pribatua formalizatu eta antolatzeko erantzukizuna Foru Administrazioak berak hartuko du, zerbitzu hori herritarrari behar den bermearekin eman dakion.

Egia da familia-bitartekotzako bide honek oraindik ez daukala tradizioz gaur egungo ordenamenduetan, baina benetan duen eraginkortasuna behar adina frogatu da zenbait esparrutan, eta agerian geratu da, batetik, senar-emazteen edo bikoteen arteko eztabaidei irtenbidea aurkitzeko tresna eraginkorra dela, eta, bestetik, bitarteko aproposa ere badela guraso eta seme-alaben arteko harremanen esparru zehatzean familia gatazka horien ondorioz sortzen diren arazoak irtenbide egokiak bidez konpontzeko.

Adierazi bezala, hizpide dugun instituzioa auziko alderdiekin zerikusirik ez duen eta gaien aditua den hirugarren pertsona baten eskuhartzean datza, horrek, inpartzialtasun handienaz, alderdiei beren tirabirak gainditzeko proposamenak eskainiko dizkie. Halako instituzio batek auziak –batez ere, banantze eta dibortzioen ondoriozkoak– azkar eta malgutasunez konpontzeko erakutsi duen eraginkortasunaz jabeturik, Nafarroako Foru Komunitatean ere hori foru legearen maila duen arau baten bidez arautu beharra dagoela argi ikusten da, familia –eta bereziki haurren eta bere ongizatearen interesak, gainetik baitaude– babesteko

Nafarroako botere publikoek eskaintako laguntza-moten artetik indar bereziko bidea dela kontsideratuz.

Horrela, interes publikoa duen jarduera publiko zein pribatu gisa taxutua geratzen da aipaturiko instituzioa. Hasierako zehaztapen horietan oinarrituz, Nafarroako Bitartekotza Zerbitzua sortuko da, berezko nortasun juridikorik gabeko unitate organiko gisa, eta, Familia Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, familia arloan eskudun den Departamentuari atxikia egonen da.

Foru Lege honetako I. kapituluaren ezartzen dira Bitartekotza Zentroen jarduera arautu behar duten xedapen orokorrak, aplikazio-eremuak (legitimitasuna duten pertsonak, bitartekarien titulazioa eta prestakuntza, akordioaren izaera; horretan, betiere lehentasuna haurrek izanik, euren interesa gorena dela kontuan hartuz) eta zerbitzuaren doakotasuna lortzeko betekizunak.

II. kapituluaren familia-bitartekotzaren ezaugarriak arautzen dira: borondatezkoa izatea, konfidentzialtasuna, inpartzialtasuna eta bitartekariak eskura izan behar duten aholkularitza teknikoak.

III. kapituluaren bitartekotzaren gauzatzea arautzen da. Oso izapidatze erraza taxutzen du, eta iraupen-epe batzuk ezartzen ditu, horrela banantzea eta dibortzioa atzeratzeko tresna gisa erabili ahal izateko.

IV. kapituluaren bitartez eratzen da bitartekariaren erregistroa. Foru Lege honetan arautzen den bitartekotza-funtzioa bete ahalko dutenak pertsona horiek bakarrik izanen dira.

V. kapituluak zehapen-araubidea ezartzen du.

Legea bukatzen da xedapen gehigarri batekin –zeinak erregelamendu bidezko garapena egiteko gaikuntza jasotzen baitu– eta azken xedapen batekin, zeina indarra hartzeari buruzkoa baita.

TESTU ARTIKULUDUNA

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Esparrua.

Foru Lege honek bitartekotza arautzen du, hala publikoa nola pribatua. Bitartekotza pribatua egin ahalko da Abokatuen, Psikologoak, Pedagogoen, Gizarte Langileen edo bestelako ente publiko edo pribatuen bidez. Azken kasu horretan, Foru Administrazioaren zaintza eta kontrolaren mende egin beharko da, eta Familia Zuzendaritza Nagusiari atxikirik.

2. artikulua.- Xedea.

Familia-bitartekotzak helburu du Foru Lege honek aipatzen dituen gatazka-egoeretan familiari babesa ematea, izaera kontentziosoko prozedura judizialetera jotzea saihestea eta jadanik hasitakoak ixtea, eta bidea ematen du lorturiko ebazpena epailearen aurrean onesteko, bitartekotza-akordioa bermatzeko eta, ezadostasunik egonez gero, akordio hori exekutiboan izan dadin. Xede hori lortzeko, familia-bitartekotzako honako zentro hauek eratuko dira:

a) Nafarroako familia-bitartekotza Zentroa: berezko nortasun juridikorik gabeko entitatea, Familia Zuzendaritza Nagusiari atxikia.

b) Nafarroako Abokatuen, Psikologoaren, Pedagogoen eta Gizarte Langileen familia-bitartekotza Zentroak eratu ahalko dira.

3. artikulua.- Zentrozen eginkizunak.

Euren xedea betetzeko, familia-bitartekotza Zentroek honako eginkizun hauek beteko dituzte:

a) Familiaren esparruan bitartekotza sustatu eta hedatzea.

b) Familia-bitartekotzako teknikak aztertzea.

c) Bitartekarien erregistroaz arduratzea.

d) Bitartekarien prestakuntza homologatzea.

e) Egiten diren bitartekotza-prozesuak ebaluatzea.

f) Bitartekotzaren doakotasunerako eskubidearen aitortpena kudeatzea.

g) Bitartekoa izendatzea, alderdiek izendatu ez badute.

h) Bitartekotzan jardutean suertatzen diren antolaketa-arazoak ebaztea.

i) Departamentuko titularrak eginkizun horiei buruz eskatzen dituen txostenak edo proposamenak prestatzea.

4. artikulua.- Legitimatua eta bitartekotzaren esparrua.

Foru Lege honek arautzen duen familia-bitartekotza premiatzeko legitimatua jarraian adieraziko diren pertsonak dira; betiere, aipatuko diren gatazka-egoerak gainditzeko legitimazioa izanen dute:

1.- Ezkontza bidez elkarturiko pertsonak:

a) Edozein prozesu judizial hasi aurretik sorturiko elkarbizitza-krisialdian, haustura saihesteko beharrezkoak diren akordioetara iristeko, edo, bestela, gatazka alderdien adostasunezko bide judizialek eramateko.

b) Alderdien arteko akordioa baldin badago, jadanik hasiak dauden banantze edo dibortzio kasuetan, kasuan kasuko hitzarmen eraentzailea sinatzeko beharrezkoak diren akordioak prestatzeko.

c) Ezkontza zibilen deuseztasuna ezartzen duten epaien edo ezkontza kanonikoaren deuseztasuna ezartzen duten eliz epaien homologazioaren edo ezkontza ez-kontsumatuko dispentsen ondorioak eta neurriak ezartzean.

d) Banantze, dibortzio edo ezkontza zibilaren deuseztasunari buruzko prozeduretan emandako epaiak eta ezkontzaren deuseztasuna ezartzen duten eliz epaien homologazioaren esparruan emandako ebazpenak bete eta exekutatzeari dagokionean, eta ezkontza ez-kontsumatuaren ondoriozko dispentsei dagokienean.

e) Egoera aldatu izateagatik epailearen ebazpen irmoz ezarritako neurriak aldatu behar direnean.

2.- Ezkontzaz besteko loturaz elkarturiko pertsonak:

a) Edozein prozesu judizial hasi aurretik sorturiko elkarbizitza-krisialdian, banantzea saihesteko beharrezkoak diren akordioetara iristeko; edo, bestelako kasuetan, elkar adostasunaren bide judizialek gatazka bideratzeko.

b) Bikote egonkorra osatzen duten pertsonak, bienak diren seme-alaba adin txikiko edo ezgaituei dagokienez, bai elkarbizitzan zehar, baita bikotea hautsi ondoren ere.

c) Bikotea osatzen duten nahiz elkarrekin bizi ez diren pertsonak, bien seme-alaben gainean bakoitzak duen boterearen esparruan jardutean suertatzen diren gaietan.

d) Izatezko bikotea osatzen duten pertsonak, euren artean sor daitezkeen elkarbizitza-arazoei dagokienez.

3.- Bikote egonkorra osatzen duten pertsonak, bienak diren seme-alaba adin txikiko edo ezgaituekin zerikusia duten gaietara dagokienez, bai elkarbizitzan zehar, bai bikotea haustean, eta baita horren ondoren ere.

4.- Familiaren baitako gatazken ondorioz sortzen diren harreman guztiak, seme-alaba biologikoei edo adopziozkoiei dagokienez.

5. artikulua.- Akordioen izaera.

1.- Familia-bitartekotzarako utz daitezkeen arazoak –3. artikuluan aipaturiko egoeren esparrukoak– eta –ondorioz– hartzen diren erabakiak xedapenezko zuzenbideari loturiko gaietara buruzkoak

izanen dira beti; hain zuzen ere, epaileen aurrean bideratu ahal izateko modukoak. Ezin izanen dute ordena publikoari dagokiona ukitu, zeren eta, azken kasu horretan, bitartekoak abokatu baten laguntza bilatu beharko baitu, edo, bestela, abokatu izan.

2.- Kasu guztietan, hartzen diren erabakietan seme-alabei eta euren ongizateari emanen zaie lehentasuna, haiengan gauzaturik baitago interes gorena. Beraz, haien zaintza eta babesari eta bisita-eskubidea gauzatzeari dagokienez, irtenbiderik egokien aldeko erabakia hartu beharko da.

Halaber, familia-bitartekotza eskatzeko ahalmena izanen dute bikote egonkorra osatzen duten pertsonak baldin eta, elkarbizitza-krisialdi bat daukatelarik, bitartekari gisa hirugarren pertsona bat onartzen badute, zeinak irtenbide itunduak eskainiko baitizkie; bereziki, bikotea haustearen kasuan gurasoen eta seme-alaben artean egonen diren harremanei dagokienez.

3.- Bitartekotza hitzarmenaren edukiak honako hauek jaso beharko ditu:

a) Seme-alabak noren zaintzapean geratuko diren, bikotekideen guraso-boterea eta hori nola gauzatu, eta seme-alabek zer bisita-, komunikazio- eta egonaldi-araubide izanen duten beraiekin bizi ez den gurasoarekiko.

b) Familiaren etxebizitza eta ostilamendua nork erabiliko duen.

c) Ezkontideen kargei eta mantenuari aurre egiteko modua eta eguneratze-oinarriak nahiz, kasua bada, bermeak.

d) Araubide ekonomikoaren likidazioa, bidezkoa denean.

e) Ezkontideetako batek ordaindu behar duen pentsioa, kasua bada.

4.- Familia gatazkak bitartekotzaren esparrutik kanpo egonen dira baldin eta alderdietako batek edo biak indarkeriaz ala mehatxu eginez jokatu badu, betiere aztergai den kasu zehatzari dagokienez; ez, ordea, denboran atzeragokoak diren eta azterturiko kasuarekin zerikusirik ez daukaten egoerei dagokienez.

6. artikulua.- Bitartekoa.

1.- Bitartekotza-kasu bakoitzean, jarduneko Abokatu, Psikologo, Pedagogo edo Gizarte Langile batek esku hartuko du, eta kasuan kasuko Lanbide Elkargoko kide beharko du izan.

Alabaina, kontuan izanik bitartekotzak xede izan ditzakeela ordena publikoari, alderdien xedapenezko zuzenbideari edo auzitan dauden pertso-

nen afektibotasunari, hezkuntzari edo gizarte-egoerari loturiko gaiak, bitartekotza zentro bakoitzak diziplina askotako talde bat izan beharko du, eta horretara beti atxikirik egonen dira, gutxienez, abokatu bat eta psikologo edo pedagogo edo gizarte-langile bat.

Bitartekotza-akordioaren behin betiko testua abokatuak idatzi beharko du beti.

2.- Bitartekotzan esku hartu duen inork ezin izanen du geroago prozedura judicial batean parte hartu, eta bilkuretan aipaturiko guztiak lotuta izanen du horri buruzko konfidentziasun eta isiltasuna.

3.- Bitartekoak ez dauka gatazka ebazteko eginkizuna, ebazten laguntzekoa baizik. Alderdiek beraiek erabaki behar dute sorturiko arazoetarako konponbiderik onena. Horregatik, bakarrik nahiz beste profesional batzuen laguntzaz (zeinek gaiari buruzko aholkuak emanen baitizkiote) jardun ahal du bitartekoak, baina bitartekotza horren erantzukizuna berea baizik ez da izanen.

7. artikulua.- Aldez aurreko betekizunak.

1.- Familia-bitartekotzara jotzen duten alderdiek Foru Lege honetan ezarritako xedapenak eta izapidatzea onartu behar dituzte.

2.- Bitartekotzara jotzea itundu daiteke epailearen jarduera hasi aurretik edo abian dagoelarik, baina, azken kasu horretan, agiri bidez frogatu beharko da jarduera hori eten egin dela, alderdi batek hala eskatuta eta besteak onartuz, edo biek, elkarrekin ados daudela, hala eskatuta.

3.- Alderdiek elkarrekin ados daudela izendatu beharko dute bitartekoa, Foru Lege honek eraturiko Bitartekotza Zentroetako Erregistroetan inskribaturikoen artetik. Doako Justiziarako eskubidea aitorturik baldin badaukate, txandaka eginen da.

8. artikulua.- Doako bitartekotzako kasuak.

1.-Bitartekotza doakoa da doako laguntza juridikorako eskubidea dutenentzat edo, horretarako beharrezkoak diren baldintzak betez, eskubide hori izan dezaketenenentzat.

2.- Bitartekotzaren doakotasuna banan-banan erabakitzen da, alderdi bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera.

3.- Doakotasunerako eskubiderik ez daukan alderdiak jarduera horren kostuaren erdia ordaindu behar du.

4.- Akordioaren bat lortzen bada edo bitartekotza izapidatu ondoren akordiorik lortu gabe amaitutzat ematen bada, alderdi batek edo biek doakotasunerako eskubidea izanik, urtebeteko epea igaro bitar-

tean ezin izanen zaie onuradun berebere eskubide hori emateko xede bera duen beste bitartekotza bat hastearen ondorioz. Horrek ez du galaraziko, bitartekotza eragin zuten baldintzek funtsezko aldaketak izan badituzte, bitartekotza zentroak horiek aintzat hartzea.

9. artikulua.- Bitartekotza partziala.

Bitartekotza erabatekoa edo partziala izan ahalko da. Zaintzari edo guraso-boterearen egikaritzari, seme-alabak ikusteko araubideari edo gai ekonomikoei dagozkien puntu batzuk aztertzea mugatzen da bitartekotza partziala.

Horrela, aukera ematen da hitzarmen bidez konpondu ezin izan diren gaiak ondoren judizialki ebatzi ahal izateko.

II. KAPITULUA

Familia-bitartekotzaren ezaugarriak

10. artikulua.- Borondatezkotasuna.

1.- Famili bitartekotza borondatezkotasun printzipioan dago oinarrituta; horren arabera, alderdiak libre dira, bitartekotza onartu edo ez onartzeko ezezik, edozein unetan horri uko egiteko ere.

2.- Halaber, bitartekotza bukatutzat eman dezaieke bitartekoak, bitartekotzari eustea antzua dela edo alderdietako batengan akordio batera iristeko borondaterik eza nabaritzen duenean.

11. artikulua.- Inpartzialtasuna.

Bitartekoak inpartzialtasun betebeharra dauka. Horren arabera, alderdiei akordioak lortzen lagundu behar die, ezer inposatu gabe eta inongo soluzio edo neurri zehatzen aldeko jarrerarik hartu gabe.

12. artikulua.- Konfidentzialtasuna.

1.- Bitartekotzan zehar informazio konfidentziala azaleratu daitekeenez gero, bai bitartekoak bai eta alderdiek ere konfidentzialtasun betebeharra daukate aztertzen ari diren informazioarekiko. Betebehar hori betetz, alderdiek sekretua gordetze ko konpromisoa hartzen dute, eta, beraz, bitartekotzaren xedea ukitzen duen edozein prozeduratan bitartekoa lekuko gisa proposatzeari uko egiten diote, eta, kasu horietan bertan, bitartekoak aditu gisa jarduteari uko egiten dio.

2.- Bitartekotzan zehar erabilitako informazioak ez du berarekin ekarriko 1. idatz-zatian ezarritako konfidentzialtasun-betebeharra honako kasu haue tan:

a) Pertsonalizatua ez bada eta prestakuntza-helburuetarako erabiltzen bada.

b) Pertsona baten bizitza edo osasun psikikoa mehatxatzen badu.

13. artikulua.- Bitartekoarentzako laguntza.

Jakintza espezializatuak beharrezko dituzten kasu edo egoeretan, bitartekariak laguntza edo aholkua eskatu ahalko diote Zentroari.

14. artikulua.- Izaera pertsonala.

Alderdiek pertsonalki egon beharko dute bitartekotza-bileretan, eta ezin izanen dute ordezkari edo tarteko pertsonen baliatu.

Aurrekoa galarazi gabe, alderdi bakoitzaren abokatuekin beharrezko jotzen dituen bilera guztiak egin ditzake bitartekoak, baldin eta alderdieta ko batek edo biek abokatu batengana jotzea erabaki badu.

III. KAPITULUA

Bitartekotzaren bilakaera

15. artikulua.- Bitartekotza-eginkizunaren hasiera.

1.- Bitartekotza has daiteke:

a) Bi bikotekideek, elkarrekin ados, hala eskaturik.

b) Alderdietako batek hala eskaturik. Kasu honetan, Zentroak beste alderdiarengana jotzen du, onespena eman dezan.

2.- Bitartekoa Zentroetako batek izendatzen baldin badu, izendapenaren berri emanen zaio, onspena eman dezan.

16. artikulua.- Lehen bilera.

1.- Bitartekoak lehen bilerara etor daitezten dei egin behar die alderdiei. Bertan, bitartekotzaren prozedura azaldu behar die; bereziki, jakinarazi behar die haietako edozeinek eskubidea duela bitartekotza amaitutzat emateko, eta bitartekoak eskubide berbera duela baldin eta alderdiren batengan laguntzeko borondaterik eza somatzen badu edo prozedurari eustea antzua dela nabaritzen badu.

2.- Bilera horretan, bitartekoak eta alderdiek erabakiko dute zein diren aztertu beharreko gaiak, eta beharrezkoak izan daitezkeen bileren nondik-norakoak taxutuko dituzte.

17. artikulua.- Bitartekotzaren akta.

1.- Familia-bitartekotzako lehen bilerari buruzko akta bat luzatuko da. Bertan adieraziko da eguna, alderdiek euren borondatez parte hartu dutela, 12. artikulua ezarritako konfidentzialtasun-betebeharra onartua izan dela. Halaber, ahal den heinean,

bitartekotzaren xedea eta aurreikusitako bilera-kopurua zehaztu behar dira.

2.- Aktaren hiru aleak sinatuko dituzte, eta alderdi nahiz bitartekoari ale bana emanen zaie. Bitartekoak beti errespetatu beharko ditu pertsonen intimitatea eta euren ekintzen sekretu eta konfidentzialtasuna.

18. artikulua.- Bitartekoaren betebeharrak.

Bitartekoak, bere jardueran zehar, betebeharrak hauek izanen ditu:

a) Alderdien arteko komunikazioa erraztea, elkar uler dezaten sustatzea eta sorturiko gatazkarako soluzioak izan daitezkeenak erdiestea.

b) Alderdiak akordioak modu askean, euren borondatez eta koakziorik gabe lortu ahal izateko, euren erabakiak hartzean eskueran behar adina informazio eta aholku izan dutela begiratzea.

c) Seme-alaba adin txikiko nahiz ezgaituen interes gorena zaintzeko beharrari buruz alderdiak elkarrekin ados jarraraztea. Seme-alabekin bilerak antolatu ahalko dira, bitartekoaren aburuz beharrezkoa baldin bada, betiere.

d) Seme-alaba adinez nagusiek esku hartu ahalko dute –beraiek edo bitartekoak hala eskatzen badute– baldin eta independentzia ekonomikorik ez badute, egoera zibila aldatu ez badute eta familiaren etxean bizitzen segitzen badute.

19. artikulua.- Bitartekotzaren iraupena.

1.- Bitartekotzaren iraupena eztabaidan dauden gaien izaeraren eta zailtasunaren arabera izanen da. Edozein kasutan ere, bitartekoaren eta alderdien arteko lehen bileratik kontatzen hasita hiru hilabete baino gehiago ezin izanen dute iraun. Foru Lege honen bitartez eraturiko Bitartekotza Zentroek, bitartekoaren eta alderdien eskaera arrazoitua tartean dela, gatazka ebazteko beharrezkoak diren luzapen guztiak erabaki ahalko dituzte.

2.- Erregelamendu bitartez ezarriko da bitartekotza-lanetan egin beharreko bileren gutxienezko kopurua –bitartekotza erabatekoa edo partziala izatearen arabera– akordiorik gabe bitartekotza amaitu ahal izateko, bai eta gehieneko kopurua ere, amaitzean akordioa lortu ala ez lortu.

20. artikulua.- Azken bitartekotza-akta.

1.- Bitartekotza-laneko azken bilerari buruzko akta bat idatziko da, eta, bertan, honako hauetako bat adieraziko da:

a) Kasua bada, bitartekotzaren xede osoari buruzko akordio orokorrik lortu ezin izana, horren arrazoa azaldu gabe.

b) Lortu diren akordio erabatekoak edo partzialak.

2.- 17. artikuluko 2. idatz-zatiak ezarritakoari jarraituz izenpetuko da akta, eta alderdiek sinaturiko akordioak, kasu guztietan, zilegitasunak, Legeak, moralak, ordena publikoak eta horietaz jurisprudentziak egiten duen interpretazioak mugatzen duten esparruaren barnean kokatua beharko du izan.

21. artikulua.- Bitartekotzaren berri ematea.

1.- Bitartekotzaren bidez lortutako akordioa jadanik abian dagoen edo abiaraz daitezkeen prozesu judizialari erants dakioke, berretsia eta onetsia izan dadin.

2.- Epaileak eskaturiko bitartekotza-lanetan lorturiko akordioak, jarduera judizialen etenak irauten duen bitartean, epaileari bitartekoak jakinarazi beharko dizkio, gehienez ere bitartekotza amaitu eta zortzi eguneko epean.

IV. KAPITULUA

Erregistroari eta antolaketari dagozkionak

22. artikulua.- Bitartekarien erregistroa.

Foru Lege honen bitartez eratuko diren Bitartekotza Zentroek Erregistro bat daukate euren ardurapean. Bertan inskribatu beharko dute 6. artikulua ezarritako baldintzak beterik Lege honek araututako bitartekotza-eginkizuna burutu nahi duten pertsonak.

23. artikulua.- Ordainketa.

1.- Bitartekotza-lana lanbide elkargoetan inskribaturiko pertsonak burutu baldin badute, kasuan kasuko lanbide elkargoak ezarritako ordainsarien arabera ordainketa jaso beharko dute.

2.- Bitartekotzara jo eta –8. artikulua arabera– horren doakotasunerako eskubiderik ez duten pertsonak bitartekotza-lana burutu duten pertsonen Familia Zuzendaritza Nagusiak ezarritako tarifak ordaindu beharko dizkiete, eta, Zentroari, berak ematen dituen zerbitzuen truke erregelamendu bidez ezartzen den prezioa.

3.- Bitartekotza doakoa denean, Foru Administrazioak ezarriko dituen tarifei jarraituz ordainduko diete bitartekariei Foru Lege honen bidez eratzen diren Bitartekotza Zentroek.

24. artikulua.- Zentroari jakinaraztea.

Bitartekoak bitartekotza-lan bakoitzari buruzko datuen berri eman beharko dio Zentroari, normalizaturiko inprimaki baten bidez, egiaztapen- eta estatistika-ondorioetarako.

Bitartekotza Lanbide Elkargo baten bitartez burutzen denean, elkargo bakoitzari jakinaraziko zaio???

V. KAPITULUA

Zehapen araubidea

25. artikulua.- Bitartekoaren erantzukizuna.

Foru Lege honen arabera bitartekari dagozkien betebeharrak ez betetzeak, baldin eta arau-hauste diren egite edo ez-egiteetan gauzatzen bada, kasuan kasuko zehapenak erakarriko ditu, horretarako alde biko espedientea ireki ondoren.

Aipaturiko erantzukizuna eskatuko da berdin delarik bitartekoa publikoa edo pribatua den, eta Auzitegi batek ezarriko du. Hain zuzen ere, auzitegi hori honako hiru kide hauek osatua izanen da: Foru Administrazioaren ordezkari batek, Abokatuaren Elkargoaren ordezkari batek eta Psikologoaren, Pedagogoaren edo Gizarte Langileen Elkargoaren ordezkari batek.

26. artikulua.- Arau-haustetzat joko diren egin-tzak.

Honako hauek joko dira arau-haustetzat:

a) Bitartekoaren jarduera zuzendu behar duen inpartzialtasunerako betebeharra urratzea.

b) Bitartekotza-prozesuan zehar lortutako informazioari loturiko konfidentziasunerako betebeharra –12.2 artikulua ezartzen dituen salbuespenak salbuespen– urratzea.

c) 18. artikuluan ezarritako betebeharrak urratzea.

d) 12. artikuluan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

e) 24. artikuluan ezarritakoa ez betetzea.

27. artikulua.- Arau-hauste motak.

1- Arau-hauste arina izanen da Foru Lege honek ezarritakoa kontuan ez hartze hutsa, baldin eta alderdiei kalterik eragiten ez bazaie.

2.- Arau-hauste larria izanen da Foru Lege honek ezarritakoa ez betetzea, baldin eta alderdiei kalte larrikeri eragiten ez bazaie. Halaber, urtebete-ko epean arau-hauste arin bat errepikatzea arau-hauste larria izanen da.

3.- Arau-hauste oso larria izanen da Foru Lege honek ezarritakoa ez betetzea, baldin eta alderdiei kalte larrikeri eragiten bazaizkie. Halaber, bi urtetako epean arau-hauste larri bat errepikatzea arau-hauste oso larria izanen da.

4.- Betiere, inpartzialtasun eta konfidentziasunerako betebeharren urratzeak, edozein kasutan, arau-hauste larrikeri izanen dira, gutxienez ere.

28. artikulua.- Zehapen-motak.

Auzitegiak ezarri ahalko dituen zehapenak honako hauek dira:

a) Arau-hauste arin batengatik, idatzizko oharrazpena, zeina Bitartekariaren Erregistroan ager-taraziko baita.

b) Arau-hauste larri batengatik, bitartekari gisa jarduteko ahalmenaz aldi baterako gabetzea, egun batetik sei hilabetera bitarteko eperako.

c) Arau-hauste oso larri batengatik, bitartekari gisa jarduteko ahalmenaz aldi baterako gabetzea, sei hilabete eta egun batetik urtebetera bitarteko eperako, eta, edozein motatako arau-hauste bat errepikatzen baldin badu, Bitartekariaren Erregistroan behin betiko baja ematea.

Xedapen gehigarria

Erregelamendu bidez garatuko dira Bitartekariaren Erregistroaren antolaketa, jarduera eta publizitateari, bitartekariaren gaikuntzari eta prezioen araubideari –bitartekotza erabatekoa edo partziala izan den– dagokion guztia, eta beharrezkotzat jotzen diren garapen-arau guztiak emanen dira.

Azken xedapena

Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabeteko epean.

Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Lege proposamena

PROPOSAMENAREN DEFENTSAZ ARDURATUKO DIREN FORU PARLAMENTARIAK IZENDA - TZEKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean eginiko bilkuran, Bozeramaileen Batzordeari entzun ondoren, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehendabizikoa.- Bikote egonkorren berdintasun juridikoari buruzko lege proposamenaren defentsaz arduratuko diren foru parlamentariak izendatzeko arauak onestea. Lege proposamen hori Parlamentuan tramitatzen ari da Diputatuen Kongresura igortzeko, Konstituzioaren 87. artikuluan xedatutakoaren babesean.

1. Bikote egonkorren berdintasun juridikoari buruzko lege proposamena, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 204. artikuluan ezarritakoari jarraikiz onetsi zuena, hiru foru parlamentariak defendituko dute Diputatuen Kongresuan. Horiek izendatzeko prozedura hauxe izanen da:

a) Izendapena eginen da Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran hartutako azken Erabakiaren aurkako botoa eman ez zuten foru parlamentarien artean soilik.

b) Izendatzeko proposamena, Lege Proposamenaren defentsa egiteaz arduratu beharko diren

hiru foru parlamentarien izenekin, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eginen du, Bozeramaileen Batzarrarekin ados, eta legegintzako ekimena onetsi ondotik deitzen den lehendabiziko Osoko Bilkurara eramanen da, honek proposamena, bere osotasunean, onetsi dezan.

c) Erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Diputatuen Kongresuko Mahaiari jakinaraziko zaio.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izendatutako foru parlamentarietako izendapen-egiaztagiriak emanen dizkie.

3. Diputatuen Kongresuak lege proposamena aintzat hartzeko tramitea amaiturik, izendatutako foru parlamentarietako beraien kudeaketaren berri eman beharko dute ondotik egiten den lehendabiziko Osoko Bilkuran.

Bilkura horretan, foru parlamentariak mintzatu ondoren Parlamentuko talde bakoitzeko ordezkari batek hitz egin ahal izanen du.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an.

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, hizkuntz politikari buruz Nafarroako Gobernuak zer jarrera eta zer asmo duen jakiteko

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak hizkuntz politikari buruz Nafarroako Gobernuak zer jarrera eta zer asmo duen jakiteko jabeldura aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN EDUKIA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko bozeramaile Juan José Lizarbe Baztán jaunak Nafarroako Gobernuari egiten zaizkion jabeldurak arautzen dituzten 179. artikulua eta hurrengoak aplikatuz, Nafarroako Gobernuak hizkuntz politikaren arloan dituen jarrera eta jarduketak Biltzarraren Osoko Bilkuran jakiteko jabeldura bat aurkeztu du, presako tramitazioa izan dezan. Jabelduraren helburua da hizkuntz politikaren aplikazioak dituen arazoak berri izatea eta konponbideak proposatzea.

Aurrekariak

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuko Lehendakariak prentsan egindako adierazpen batzuen berri izan du. Badirudi adierazpen horietan lehendakariak Euskararen Legea, gaur egun dagoen bezala, eta Nafarroako Gobernuak azken urteotan eraman duen hizkuntz politika aplikatzen jarraitzea zalantzan jartzen duela, aplikazio horren ondorioz nafarren artean, euskaraz dakitenean eta ez dakitenean artean, zehazki, diskriminazioa egiten delakoan.

Zehatzago esateko, Gobernuko Lehendakariak, horretarako deitutako prentsaurre ofizialean, hauxe esan du: “nire ustetan eta nire Gobernuarenean, euskararen legeak aldaketa behar du”, “Eusko Alkartasunak eremuei dagokienez aurkeztutakoaren kontrakoa”; adierazi du, halaber, bere Gobernuak “esku hartu behar du, inolako diskriminaziorik gerta ez dadin”, euskara nafar erdaldunak baztertzeko erabiltzen ari den ustean oinarriturik, nonbait.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldea zeharo harritzen du Nafarroako Gobernuak proposatzeak orain, heldu den ikasturterako arlo honetan dituen aurreikuspenak eta foru administrazioko sindikatuekin dituen akordioak aldatzeko neurririk bat ere hartu gabe, Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politikak porrot egin duela onartu beharra dagoela, eta areago, Euskararen Legeari aldaketak egin behar zaizkiola, baita Komunitateko eremu-banaketari dagokionez ere, horren aplikazioak nafar gehienen eskubide konstituzionalak kaltetetzen dituelakoan, gainera.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearentzat harrigarria da, orobat, Gobernuko Lehendakari eta, halaber, UPNko lehendakari Sanz jaunak adierazpen hauek plaza-ratzea UPN buru izan dituen Nafarroako Gobernuen kudeaketaren autokritikarik txikiena egin gabe, kontuan harturik Euskararen Legea 1986. urtearen amaieran onartu zela, eta UPNko Gobernuaren lehendakaritza eta hizkuntz politikaren ardura izan dituela ordutik hona iragandako denboraren bi herenetan.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ez du ulertzen UPNren gobernuak, aurreragokoek eta gaur egungoak, ezer egin ez izana nafarren arteko diskriminazioa eragin zezakeen Euskararen Lege horren garapeneren aurrean, ez eta inolako neurririk proposatu edo hartu ez izana euskal eremuan erdaldunen

eskubideak urra ez zitezen, herritar gehienek Administrazio Publikoan sartzeko oztoporik izan ez zezaten, eta "euskararen erregulazioa irakaskuntzaren arloan argiagoa izan zedin".

Eskaeraren zioak

Esanak esan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak bere kezka agertu nahi du Euskararen Legearen aplikazioak gure Komunitatean dituen ondorioetako batzuk direla-eta, eta bereziki herritar ez-euskaldunek administrazio publikoetako lanpostuak eskuratzeko dituzten trabengatik eta gure Komunitateko hizkuntz eremuetan euskararen irakaskuntzaren erregulazioa aplikatzeko dauden zailtasunengatik. Horrekin batera, berriro ere adierazi nahi du bere iritziz Euskararen Legean irakaskuntza ez-unibertsitariorako ezartzen den erregulazioa ez dela aplikatu behar Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

Nolanahi ere, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, defenditzen du oraindik ere LORAFNaren aginduz 1986an egin zen Euskararen Legearen balioa gure Komunitatearen hizkuntz aniztasunaren bilgune gisa, eta hizkuntz politika garatzean sortzen diren arazotarako beste irtenbiderik ez dagoenean baizik ez dela proposatu behar hura aldatzea, zer proposatu nahi den ongi jakinik eta aldaketa bermatzen duen gehiengo argia edukita; hori guztia eginen da, betiere, gutxiengoaren eskubideak eta aipatu Legean ageri diren printzipio nagusiak, Espainiako Konstituziotik eta LORAFNatik heldu direnak, errespetatuz.

Beraz, euskararen erabilera Administrazioan eta euskararen irakaskuntza erregulatzen dituzten legezko arauak aldatzeko premia, beharbada, badagoela onartuta ere, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ez du erabateko segurtasuna pentsatzeko aldaketa horiek, ezinbestez, Euskararen Legean egin behar dire-

nik, eta bai ordea, lerrun txikiagoko legezko arauen bitartez egin daitezkeela, jatorrizko testua egungo egoerara egokitzeko, eta ez legea bera aldatzeko. Edozein kasutan ere, nahi ez diren ondorioak saihesteko bidea gobernuaren lan eta ekintza egokia da, horrelaxe eragotziko baitira diskriminazio mota guztiak, Nafarroako Gobernuak berak, paradoxikoki, salatutakoak barne.

Eta, modu guztietara, proposatzen diren aldaketak, edozein lerrunetakoak direlarik ere, biltzarren egoitzan, lasai eta datuak eskuan egindako eztabaida baten emaitza izan beharko dira, arazo erreala aztertu ondotik, eta arazo berririk sortu gabe; horixe izanen litzateke lehendabiziko pausua premiazkoak ditugun irtenbideak bilatzen hasteko, eztabaidatu ondotik. Ildo honetan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak adierazi nahi du kezkaturik dagoela Gobernuko lehendakariak gizarteari eztabaida hau plazaratu dion moduagatik, proposamen zehatzik egin gabe, zer nahi duen aldatu eta nola esan gabe eta erabateko gehiengoaren menpeko lege bat aldatzeko behar diren sostenguak aldezturirik izan gabe.

Proposatzen den jabeldura

Arazoi horiek direla eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak jabeldura bat proposatzen du, Nafarroako Gobernuak hizkuntz politikaren arloan dituen jarrera eta jarduketak Biltzarren Osoko Bilkuran ezagutzeko eta zehazki jakiteko, Euskararen Legea aldarrikatu zenetik hamalau urte iraganik, zein den Nafarroako Gobernuak haren aplikazioaz egiten duen balantzea, euskararen erabilerari nola irakaskuntzari dagokionez, eta zein den egungo egoeraz egiten duen diagnosis.

Iruñean, 2000ko apirilaren 5ean

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eskola Kontseiluak ezagutarazteko eta sentsibilizatzeko kanpaina bat presta dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eskola Kontseiluak ezagutarazteko eta sentsibilizatzeko kanpaina bat presta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari:

Eskola Kontseiluak berritu direnean, hainbat arrazoi direla medio gurasoen parte-hartzea eskasa izan da.

Eskola Kontseiluak berritzeko orduan, baliteke erakudeek eginiko publizitatea gutxi edo desegokia izatea, eta horrenbestez, komeniko litzateke publizitatearen edukiak aldatzea eta publizitatearen kalitatea eta kantitatea areagotzea.

Herri ordezkariak dagokie bere esku dagoen guztia egitea parte-hartzea ahalik eta handiena izan dadin. Horretarako, beharrezkoa da behar bezala ezagutaraztea zeintzuk diren Eskola Kontseiluen zereginak eta zein eskoletako kontrol, kudeaketa eta zuzendaritzan esku hartzen dutenean gurasoek bere gain hartzen duten erantzukizuna.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu diogu kasuan kasuko batzordeari

1.- Nafarroako Gobernua premiatzen da Eskola Kontseiluak ezagutarazteko eta sentsibilizatzeko kanpaina bat presta dezan IGErekin eta Hezkuntzako Batzorde Nagusiarekin elkarlanean, gurasoen parte-hartzea areagotzearen, bai hauteskunde horietara euren burua aurkezterakoan bai botoa emateko eskubidea baliatzerakoan.

Iruñean, 2000ko martxoaren 30ean

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, polizia nazionala Nafarroako Unibertsitate Publikoan bortxaz sartu izana salatzen da

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, polizia nazionala Nafarroako Unibertsitate Publikoan bortxaz sartu izana salatzen da".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta

bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, mozio bat aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Martxoaren 29an eta 30ean, gauez, gertaera larri eta garrantzizkoak izan ziren Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Bi gau horietan, Polizia Nazionaleko agenteek Unibertsitatearen instalazioetatik aterarazi zituzten presoek giza eskubideak errespetatzearen alde gose greban zeuden ikasleak, zehazki, 42 lehendabiziko gauean eta 102 bigarrean. Jokabide haren erantzulea Ansuategui jauna da, baina errektore Pérez-Prados jaunak ere onespena eman zuen.

Bistan da gertaera horiek larriak direla, eta polizia unibertsitatean sartzeak eta bertatik ikasleak aterazteak eskubide unibertsal bat urratzea dakarrela, Europako edozein estatutan, salbu eta historian zehar diktadura desberdinek hura urratzeko dudarik izan ez dutenetan, onarturik dagoen eskubidea, alegia. Oinarrizko printzipio horrek ezartzen du Unibertsitatea autonomia duen espazioa dela eta bertan segurtasun indarrek esku hartzea legez kontrakoa dela.

Ildo honetan, tamalgarria da Nafarroa, berriz ere izatea aitzindari oinarrizko eskubideak (adierazte edo elkartze askatasuna) urratzen, eta oraingoan ere Espainiako Poliziak ohi duen bezala jokatu izana: bortxa erabiliz eta, kasu honetan, gauaren babesean.

Nafarroako Parlamentuak Unibertsitateko komunitatearen eta haren zuzendaritza organoen gainean inolako aginterik ez duela egia izanik ere, gertaera hauen larria ikusirik Parlamentuak ezin du saihestu bere iritzia plazaratzea.

Hori guztia dela eta, gure taldeak hurrengo erabaki proposamena proposatzen du:

Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Polizia Nazionaleko agenteak NUPeko esparruan bortxaz sartu izana salatzea, unibertsitatearen esparruaren autonomia eta bortxaezintasunaren printzipioa urratzen duelako.

2. NUPeko arduradun nagusi eta errektore Pérez Prados jaunari helaraztea ez gaudela ados hemen adierazitako gertaeren aurrean izan zuen jokabidearekin, unibertsitatearen esparruan poliziak sartzeko baimena emateagatik.

Iruñean, 2000ko apirilaren 3an

Bozeramailea: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Familiaren Zuzendaritza Nagusia sor dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Familiaren Zuzendaritza Nagusia sor dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendekin aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192 eta 193. artikuluetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran bideratzeko:

Familia gizarte antolatze oinarrizko zutabea da; hartara, beharrezkoa da aurrera eramatea zerga, ekonomia eta gizarte arloko neurriak bilduko dituen ekintza bateratu bat, familiak gizartean duen zeregina eta haren egoera hobetzearen antolamendu eta egitura mota zeinahi diren ere.

Familia gizarteratzeko, elkartasunerako eta berori osatzen duten kideen babesean eragile gisa ulertu behar da, hartzen duen forma edonolako delarik ere. Kultura eta gizarte mailan gertatzen ari diren aldaketek eragina dute jaiotze eta

ezkontze tasan, barne harremanetan, ahaidetasunean, hausturetan eta familia mota berriak eratzean. Familia mota berri horiei buruzko arau juridiko berriak eman beharra dago; izan ere, familiak berebiziko eragina du gizartean, hala arlo pertsonalean nola sozialean eta ondarezkoan. Familiari eman beharreko babesaren oinarri behar du izan eragile publiko eta pribatuen arteko orekak, horri esker erantzun ahal izanzen baitzaie gizarte arloan askotarikoa baina ekonomia arloan globalizatua den merkatuaren eskakizunei.

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko martxoaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki proposamen bat onetsi zuen; haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen zen familiari babes emateko departamentuen arteko plan bat egin dezan. Plan horrek, besteak beste, ondokoak bilduko ditu: jaiotzeak sustatzeko politikekin zerikusia duten neurriak, lan egiten duen amaren egonkortasuna sustatzea eta baita haren lan-babesa ere, hilabete gutxiko eta hiru urtera arteko haurrak hartzeko eskaintza publikoa areagotzea, lana eta familia bateragarriak izateko programak, jaiotzarekin zerikusia duten pizgarriak ematea familiei...

Orain dela gutxi onetsitako erabaki proposamen horrek gainditu egiten du Nafarroako Gobernu Departamentu batek hartzen duen esparrua, eta arazo ekonomiko hutsetatik haratago joan behar du, ondoko arloak ere ukitu behar baititu: hezkuntza, osasuna, etxebizitzaren erosteketa, enplegu plana, plan gerontologikoa; eta bertan parte hartu beharko dute ukitutako guztiek eta familiari babes emateko departamentuen arteko plan hori taxutzerakoan zeresana duten administrazioek.

Osoko Bilkura hartan berean, Nafarroako Parlamentuak orobat onetsi zuen gizon eta emakumeen aukera berdintasunari buruzko plan bat egitea. Plan hartan, argi eta garbi aipatzen zen zerbitzuen alorra –familia-zamak dituzten emakumezkoen laguntza emateko programa berekiak taxutzearen eta hezkidetzeta-metodologia pedagogiko bat sustatzearen–. Azkenik, plan horrek arreta berezia esakiniko dio emakumeen aurkako etxeko indarkeria desagertaraztearekin zerikusia duen guztiari.

2000ko martxoaren 23ko Osoko Bilkura hartan, Nafarroako Parlamentuak orobat onetsi zuen erabaki proposamen bat, hurrei buruzko foru lege bat egitearen beharrari buruzkoa. Familiari babes emateko departamentuen arteko planean aldaketa bat egitea onetsi zen, bertan arazo sozialak dituzten hurrei eta familiei laguntza emateko kapitulu bat sartzearen. Kapitulu horretan ondoko alor hauek hartuko dira kontuan: krisian dauden familiei laguntza emateko prebentzio-programak, famili hezkuntzarako programak, famili harrera garatzea

eta ordutegi zabala eta malgua duten gizarte zerbitzuak ezartzea, arriskuan dauden hurrei laguntza noiznahi eta nonahi emateko.

Nafarroako Parlamentua berrikitan onetsitako erabaki proposamen horiek agerian uzten dute familiak berebiziko garrantzia duela eta familia mota guztiei babes emateko politika bat egotea gizartearentzat esanguratsua izan daikeela; Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearentzat behinik behin horrek lehentasuna du.

Ekimen horiei ez zaie tratamendu egokia ematen –ez antolamendu ez hierarkia aldetik– Nafarroako Gobernuaren organigraman, eta hortaz, gure ustez, ezin izanzen dira aurrera eraman eragile guztien parte hartzearekin eta ez dute uste zen bezalako etekinik eman ahalko.

Gaur egun, badago, egon, Familiaren eta Sektore Zerbitzuen Zuzendariordeak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari atxikia, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren barruan.

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak Familiaren Zuzendaritza Nagusia sortu behar dela uste du, egungo zuzendariordeak dituen zereginen gain familiari babes emateko departamentuen arteko plana egin eta koordinatzeko zeregin bere gain hartuko duena.

Zuzendaritza Nagusi berri hori –bere garrantzia kontuan izanik– Nafarroako Gobernuko Lehendakari eta Barne Departamentuari atxiki beharko zaio, eta departamentu horren kontseilari titularraren menpe egonen da. Zuzendaritza Nagusi horren barruan kokatuko da Nafarroako Foru Komunitatean sortu beharreko Familia Bitartekaritzako Zerbitzua.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu diogu Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen duen Familiaren Zuzendaritza Nagusia hilabeteko epean sor dezan. Nafarroako Gobernuko Lehendakari eta Barne Departamentuari atxikiko zaio eta departamentu horren kontseilari titularraren menpe egonen da.

2.- Familiaren Zuzendaritza Nagusiaren zereginen artean, ondokoek izanzen dute lehentasuna: familiari babes emateko departamentuen arteko plana egin eta koordinatzea eta Nafarroako Foru Komunitateko Familia Bitartekaritzako Zerbitzua abian jartzea.

Iruñean, 2000ko martxoaren 31n

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar adina argibide eman diezaien euren filiazioa ezagutu nahi duten pertsona eta familiei

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar adina argibide eman diezaien euren filiazioa ezagutu nahi duten pertsona eta familiei".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariarik emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeko bozeramaile Alberto Catalán Higueras jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatzeko.

Guraso biologikoak nor diren ezagutu ahal izatea oinarrizko eskubidea da; identitatea ezagutzeko eskubidea deritzo horri, eta oinarrizko nortasun eskubideen artean sar liteke.

Espainiako Konstituzioko 18.1 artikulua intimitaterako eskubidea bermatzen du eta 105. artiku-

luak, berriz, herritarrek administrazioaren artxibo eta erregistroetan sartzea izanen dutela ezartzen du.

Hortaz, Konstituzioak aitortu eta babesten dituen oinarrizko eskubideak urratu daitezkeenez gero, beharrezkoa da eskubide horien titularrei eskubide horiek legez baliatu ahal izanen dituztela bermatzeko modua ezartzea eta semetzako edo alabatzakoarengan zein haren ondorengoengan eragina izan dezaketen datu genetikoak eskuratu ahal izanen direla bermatzea, betiere.

Nafarroako Gorteek ondokoa eskatzen diote Nafarroako Gobernuari:

1.- Espainiako Gobernuari eska diezaiola lege aldetik hartu beharreko neurriak har ditzan indarra duen legedian biltzen ez diren aferei buruz, euren filiazioa ezagutu nahi duten pertsona eta familiei behar adina argibide ematearren profesionalen laguntzarekin.

2.- Bere eskumenen esparruan, euren filiazioa ezagutu nahi duten pertsona eta familiei behar adina argibide eman diezaiela.

3.- Kasu batean zein bestean, errespetatu egin beharko dira lege-, psikologia-, familia- eta gizarte-baldintzak bitartekotza eginez. Bitartekotza horrek behar bezala babestuko ditu bi parteak, balizko elkartzea ahalik eta modurik onenean eta denen bidezko eskubideak zainduz egin dadin.

Iruñean, 2000ko apirilaren 3an

Bozeramailea: Alberto Catalán Higueras

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arau jakin batzuk aplikatu dituzten Ikusentzunezkoen Kontseilua eratzean

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arau jakin batzuk aplikatu dituzten Ikusentzunezkoen Kontseilua eratzean".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinek aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko bozeramaile Juan José Lizarbe Baztán jaunak Parlamentuko Erregelamenduan mozioak arautzen dituzten 192. artikulua eta ondokoak aplikatuz, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatzeko honako hau onestea proposatu du: mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseilua eratzean erabaki proposamenean zehazten diren arauak aplikatu dituzten.

Proposamenaren zioak

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak martxoaren 23an onetsi zuen Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak proposaturiko mozio bat, zeina Nafarroako Gobernua premiatzen baitzuen Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseilua sor zezan. Testu hura Gobernuarentzat txeki zuri bat bailtzen hartu zen gero, bertan zehazturik ez zegoelako Ikusentzunezkoen Kontseilurako proposatzen zen eredu, eta beraz uler zitezkeen Gobernuari ez zitzaioela inolako mugarik jartzen hura sortzerakoan. Bestalde, Gobernuak berak traba gairdiezinak izan zitzaizkeen gaiari heltzean, proposamena egin zuen taldearen asmoen berri ez izategatik.

Horrelakorik ez gertatzeko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako

Ikusentzunezkoen Kontseiluaren gaineko beste mozio bat aurkeztu du Biltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida dadin, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseilua eratzean aplikatu beharko litzuzkeen arauak onartzeko xedearekin.

Erabaki proposamenaren testua.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseilua eratzean arau hauek aplikatu dituzten:

1. Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseilu Nagusia tresna bat da, herritarrek parte har dezaten Nafarroako Foru Komunitatearen botere publikoek, ikusentzunezkoen arloan, arauak ezarri edo esku hartu ahal duten gai guztietan.

2. Haren eginkizunek, lege eta erregelamenduz arautuek, ikusentzunezkoen arloan, Nafarroako administrazio publikoaren eskumenekoak diren edo izan daitezkeen egoera guztiak, gaur egungoak nola etorkizunekoak, hartuko dituzte, bai eta kontrol eta egimendukoak ere.

3. Hauexek dira, besteak beste, Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseiluaren eskumenak:

- Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari aholku ematea ikusentzunezkoen sistemaren gaineko legediarekin eta arauarekin zerikusia duten gaietan; eta halaber sistema horren egoeraz eta aurreikuspenaz, modalitate tekniko eta lurralde mailako guztietan.

- Irrati edo telebistarako lizentziak edo administrazio kontzesioak eman, berritu edo ukatzeko prozeduretan aginduzko txostena luzatzea, edozein delarik ere modalitate tekniko; horren barne dira edukiari dagokion lehiaketarako deialdiaren aurretiko egoerak, baita ebazpena eman aurretikoak ere.

- Edozein modalitatetako telebista edo irrati lizentzia berriak adjudikatzeko proposamenen inguruko iritzi loteslea, aldekoa zein kontrakoa, ematea; proposamen horiek Foru Komunitateko kontratazio organo eskudunak igorri beharko dizkio.

- Nafarroako Foru Komunitateak telebista edo irrati zerbitzuen zuzeneko kudeaketarako edo kogestiorako abiarazi nahi dituen proposamenen inguruan iritzi loteslea, aldekoa zein kontrakoa, ematea.

- Nafarroako Administrazio Publikoek komunikabideekin sinatu asmo dituzten akordioen gaineko iritzi loteslea, aldekoa zein kontrakoa, ematea, komunikabide horiek, zuzenean edo zeharka, laguntza publikoak jasotzen dituztenean edo titulartasun edo jabari publikoko ondasun edo zerbitzuak erabiltzen dituztenean.

- Nafarroako Administrazio Publikoen eta komunikabideen arteko lankidetzak akordioak, egungoak eta etorkizunekoak, kontrolatu eta haien jarraipena egitea.

- Publizitate instituzionalak komunikabideetan izan beharreko tokia kontrolatu eta haren jarraipena egitea.

- Nafarroako Parlamentuari urtero ematea ikus-entzunezkoen sistemaren garapenaren berri, edukiei arreta berezia emanez.

- Ikusleen, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarten eskaerak eta kexak jasotzea, eta harreman etengabea eta trabarik gabekoa izatea sektore horiek.

- Ikus-entzunezkoen arloko iragarle eta enpresei eskatzea legez kanpoko publizitatea, baita nahasmena edo iruzurra eragin dezakeena ere, kendu edo zuzentzeko.

- Botere publikoen eta komunikabideen aurrean behar diren jarduketak eta kudeaketak guztiak egitea, honakoak bermatzeko: programazioaren kalitatea, informazioaren pluraltasuna eta objektibitatea, pertsonen duintasunarekiko begirunea, eta eskubide konstituzionalen efektibitatea, titulartasun publikoko ikus-entzunezko komunikabide guztietan eta halaber, zuzeneko kudeaketakoak izan gabe ere, kontzesio edo baimen administratiboak baliatuz aritzen direnetan, edo onartutako lege-gabezia edo irregulartasun egoeraren ondorioz edo arau-hutsuneak direla-eta.

- Behar diren jarduketak eta kudeaketak guztiak egitea honakoa bermatzeko (aurreko puntuan adierazitakoen esparruan): balore konstituzionalen eta LORAFNAn bildutakoen defentsa eta babesa, eta Nafarroako Foru Komunitatearen errealitate instituzionala eta pluraltasuna defenditzeari dagozkionak.

- Nafarroako Parlamentuari hautagai bat proposatzea Nafarroako Foru Irrati eta Telebistako zuzendari nagusi izenda dezan.

- Baimena ematea Nafarroako Administrazio Publikoek lankidetzak hitzarmenak izenpetzeko telebistako emisora edo katea publiko edo pribatuekin, horrek fondo publikoekin ordaindutako dirulaguntzak, edozein modutakoak, ematea ekar dezakeenean.

.Nafarroako herritarrek ikus-entzunezkoen emisioak unibertsaltasunez jaso ahal izatea bermatzea.

4. Nafarroko Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusia zuzenbide publikoko ente bat da, nortasuna juridiko propioa duena, Administrazio Publikoekiko independentea, bere eginkizunak betetzeko erabateko ahalmena, autonomia organiko eta funtzionala dituena. Hura sortuko duen araudiak zuzenduko du eta haren jarduna Administrazio Publikoen Erregelamendu Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren oinarriko arauen arabera izanen da.

5. Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusiaren osaketa hauxe izanen da:

- 5 kide, Nafarroako Parlamentuak proposatuak.

- 2 kide, Gobernuak proposatuak.

- 3 kide, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuak.

- 4 kide, erabiltzaileek eta kontsumitzaileek proposatuak (kontsumitzaileen elkarteetan, sindikatuetan eta ikusle edo entzuleen elkarteetan hautaturik)

- 4 kide, ikus-entzunezkoen sektoreak proposatuak (kazetarien edo sektoreko langileen elkarteetan, Nafarroako Prentsaren Elkarteetan; eta enpresetan eta prestakuntzako goi mailako ikastetxeetan hautaturik).

Nafarroako Parlamentuak proposatutakoak ikus-entzunezkoen sektorean, kulturean, unibertsitatean eta elkarten sektorean merezimendu profesional nabarmenak dituzten pertsonak izanen dira, Nafarroako gizartean dagoen aniztasun ideologikoa islatuko dutenak. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak irizpide bera erabili beharko du.

Kontseiluko kideak ez dira inoren agintepean egonen, salbu eta Nafarroako Gobernuaren ordezkariak. Era berean, ez dute jarraibiderik jasoko inongo agintedunengandik eta autonomiaz beteko dituzte eginkizunak, beraien irizpideari jarraikiz.

6. Araudiak honakoak xedatuko ditu: lehendakaria hautatzea, barne araudia egitea, kontseiluko kideen eta lehendakariaren kargu-uzteak, bateraezintasunen araubidea, finantzaziorako irizpideak, ahal denik eta zorrotz izan beharko dela kontuan harturik, eta Kontseiluaren funtzionamendua, osoko bilkuretan eta batzorde iraunkorretan.

Iruñean, 2000ko apirilaren 7an

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

F saila:
GALDERAK

Ezgaitasun fisikoren batek jotako eta fisioterapia-tratamendua behar duten haurren eskolatzeari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak ezgaitasun fisikoren batek jotako eta fisioterapia-tratamendua behar duten haurren eskolatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaiten:

Administrazio Publikoaren egungo arazo nagusienetako bat da kudeaketa hainbat departamentu-konpartimentuk egiten dutela batera, eta horiek ez dutela erantzun eragingarri eta erabatekorik ematen, baliabideak banatzerakoan ez datozelako bat ez denborak, ez espazioak, ez pertsonak, ez taldeak ere. Nabari da ez dagoela garatuta zeharkako kudeaketa bat –departamentuen ahaleginak koordinatzeko gai, giza- eta ekonomia-baliabideak helburu bakar bati esleitzeko gai, batez ere politika soziala denaz bezainbatean: hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak.

Egoera hori minusbaliatuek, drogazaleek, eritasun kronikoak dituztenek eta giza-talde askok –haur, nerabe zein zahar– pairatzen dute. Orain dela gutxi, ezgaitasun fisikoak jotako Erriberako 21 haurren gurasoak Parlamentuan izan ziren, hona etorri baino lehen ezin konta ahala ahalegin antzu egin eta gero, zertarako eta Osasun Depar-

tamentuari eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuari besterik gabe eskatzeko beraien seme-alaben fisioterapia-tratamendua dela-eta ados jar daitezten.

Gai hori dela-eta, gure taldeak jakin izan duenez, ez dago koordinaziorik itunpeko ikastetxe baten eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren artean % 70eko ezgaitasun fisikoa duen ikasle bat bere gorpil-aulkiarekin igotzeko arrapala bat egiterakoan. Deigarria da administrazioaren ezintasuna Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea argi eta garbi urratu den kasu batean, eta aintzat hartzea da familia horren nekea, hiru urteko eskolatzeko neketsuaren ondotik zuzentzen baitzaio talde politiko bati.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Zenbat haur dago eskolatuta Nafarroan ezgaitasun fisikoren bat izan eta fisioterapia-tratamendu etengabea behar duena? zein herritakoak dira? zein eskolatarara joaten dira?

2.- Zein bideri jarraikiz eman zaie tratamendua (Osasun Departamentuaren eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren arteko itunak, protokoloak, hitzramenak)?

3.- Nola egiten dira birgaitze-tratamenduak urtean zehar? zer egiten da tratamenduak egin ahal izateko eskola zein opor garaian? sare publiko zer osasun-etxek ematen du fisioterapia zerbitzua?

4.- Ezgaitasun fisikoren bat duten ikasleak dituzten ikastetxe guztiek betetzen al dute traba arkitektonikoak kentzeari buruzko araudia? Nafarroako ikastetxeetako sarbideak prestatuta al daude, oro har, ikasleak gorpil-aulkiekin eta aparatu ortopedikoekin sartzeko?

5.- Zer egiten du Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ikastetxe batek bere instalazioak

ezgaitasun fisikoren bat duten ikasleentzako ego-
kitu ditzan, baldin eta arrapalak izan arren horiek
aldapatsuak badira?

6.- Berrikusi edo berrikusiko al dira Nafarroako
ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako

aparatu eta instalazioak, Oztopo fisiko eta zentzu-
menezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru
Legea betetzen dela egiaztatzeko?

Iruñean, 2000ko apirilaren 3an

Bozeramailea: María Isabel Arboniés Bermejo

Adimen-osasuneko sarean artatutako 18 urtetik beherakoei buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko
apirilaren 10ean egindako bilkuran, M^a Isabel
Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak adi-
men-osasuneko sarean artatutako 18 urtetik
beherakoei buruz egindako galderaren biderape-
na onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko
erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko
Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker
Batua Parlamentuko Taldeko María Isabel Arbo-
niés Bermejo foru parlamentari andreak, Parla-
mentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean,
hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezai-
oten:

Azterlanen arabera, 18 urtetik beherakoen
artean % 10ek du laguntza psikiatrikoa behar
duen nahasketa psikikoren bat, eta halere, Espai-
nian onartu gabe dago haur-psikiatriako espeziali-
tatea eta ez dago adimen-osasunean aditua den
erizainik. Adimen-osasunari buruzko kontuetan
larrugorrian gaude oraindik ere.

Ez Espainian ez Nafarroan ez dago politika
soziosanitariorik. Adimen-osasuneko sareak gai-
nezka egiten du, eta gizarte-zerbitzuen sarea,
berriz, lotsagarria da, inolako koordinaziorik
gabea. Horren ondorioz, Nafarroako hainbat fami-
liak egoera krudela bizi du –hirugarren munduan
bizi dutenaren parekoa–, adimen-osasunaren gai-
neko ardura administratiboa dutenek ondo asko
ezagutzen dutena.

Galizian bizi izandako egoera lazgarriak –ama
batek 17 urteko seme eskizofrenikoa hil eta bere
buruaz beste egin zuen, administrazioaren depar-

tamentu eta zerbitzuetara bata bestearen ondotik
erantzunik jaso gabe jo ondoren– gizarte mailan
isilik gordetako auzia haizatu du. Profesionalek
zein epaileek eta administrazio publikoak berak
ondo asko ezgautzen duten egoera horrek halako
gertaerak errepikatzea ekar dezake, baldin eta
adimen-osasunaren arloan dagoen hutsunea
betetzen ez bada.

Ez dago adingabeentzako psikiatriako atal
berekirik, salbu eta Katalunian. Han badute haur
eta gazteei laguntza emateko sarea, lau ospitali-
zazio-atal –40 ohe– eta nerabeen krisietarako atal
espezializatua –25 plaza– dituen. Osasun siste-
mak urratu egiten ditu lege eta aginduak, helduek
jasotzen duten laguntzatik bereizitako laguntza
berekia garatzeaz denaz bezainbatean.

Adimen-osasunari buruzko 1998ko oroit-idaz-
kiaren arabera, Nafarroan 17.000 gaixo joan ziren
osasun-etxeetara, eta horietatik 1.159 16 urtetik
beherakoak ziren, haur eta gazteentzako progra-
man artatu zirenak. 16 urtetik beherako 568 gaixo
berriak ziren. Helduentzako adimen-osasuneko
zentroetan artatzen dituzte haur eta gazteak,
salbu eta kasu konplexuagoak, horiek haur eta
gazteentzako adimen-osasuneko zentroetan arta-
tzen baitituzte. 1998an 305 izan ziren 16tik behe-
rakoak, eta horietatik 116 gaixo berriak ziren.
Eguneko Ospitaleak, haur eta gazteentzako zen-
troko instalazioetan baitago, garapen-nahasketa
larriak jotako 5 adingabe artatu zituen urte horre-
tan.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

1.- 18 urtetik beherako zenbat pertsona artatu
ziren Nafarroako adimen-osasuneko sarean 1996,
1997, 1998 eta 1999an?

2.- 12 urtetik beherako zenbat pertsonak behar
izan du ospitalizazio partzialeko plaza bat 1996,
1997, 1998 eta 1999an?

3.- Zenbat nerabek (12-18 urte) behar izan du ospitalizazio partzialeko plaza bat 1996, 1997, 1998 eta 1999an?

4.- 12 urtetik beherako zenbat haur ospitaleratu zituzten Nafarroan psikiatriako ataletan 1996, 1997, 1998 eta 1999an?

5.- Zenbat nerabe (12-18 urte) ospitaleratu zituzten Nafarroan psikiatriako ataletan 1996, 1997, 1998 eta 1999an?

6.- 18 urtetik beherako zenbat pertsona –nahasketa, psikiko, nortasun- edo jarrera-nahasketa dutenak– bidali izan dira Foru Komunitatetik kanpora 1996, 1997, 1998 eta 1999an?

7.- Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak halako arloetan –anbulatorioa, eguneko ospitalea, krisian dauden haur eta gazteentzako

ospitalizazio atalak– haur eta nerabeei laguntza berezia ematearren?

8.- Zergatik artatzen dituzte haurrak helduentzako adimen-osasuneko zentroetan, baldin eta haur eta gazteentzako adimen-osasuneko zentroa ere baldin badago?

9.- Zer asmo du Nafarroako Gobernuak ospitalizazio partziala denaz bezainbatean haur eta gazteentzako laguntza zabaltzeko? zer asmo du Nafarroako Gobernuak haur eta nerabeak ospitaleratzeko atal berekiak abiarazteaz denaz bezainbatean, Nafarroan halakorik ez baitago?

Iruñean, 2000ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: María Isabel Arboniés Bermejo

Orkoiengo saihebideari buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Orkoiengo saihebideari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erreglamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaiten:

1998ko maiatzaren 5ean Herrilan zuzendari nagusiak 502/1998 Ebazpena eman zuen, NA-7000 errepidean Orkoiengo saihebidearen Proiektua prestatzeko lanak “Navarra de Suelo Industrial, S.A. (NASUINSA)” enpresaren esku uztea onetsi zuena.

Ebazpenean, zuzendari nagusiak adierazi zuen alde hori Iruñeko mendebaldeko eta iparrekoin gurubideen eta Iruñetik Lizarrara Etxaurin

barna doan errepidearen artean dagoela, eta industrialde batzuk egiten ari zirela han: horietako bat, Industri, Merkataritza eta Lan Departamentuak Volkswagenean instalazioen ondoan sustatua, Arazuri-Orkoiengo Industria Eremua izeneko eta 859.122 m²-ko azalerarekin, eta beste bat, Udalak sustatua, Orkoiengo Industrialde Berria izeneko, 118.625 m²-ko azalerarekin.

Aurrerago, zuzendari nagusiak zioen industrialde horiek eragindako trafikoak ondorio larriak izan zitzaizkela NA-7000 errepidean, Orkoiengoren barna pasatzean, eta horrexegatik beharrezkoa zela saihebidetara erabaztea.

Halere, 502/1998 Ebazpenarekin ere, saihebidearen exekuzioa geldiarazita dago eta ez dago hura eraikitzeke egutegiaren berririk.

Hori dela-eta, honakoa jakin nahi dugu:

1.- Navarra de Suelo Industrial, S.A. (NASUINSA) enpresak eginak al ditu NA-7000 errepidean Orkoiengo Saihebidetara egiteko Proiektua prestatzeko lanak?

Hala baldin bada, kostua eta finantzazioa jakin nahi ditugu.

2.- Zein izanen litzateke NA-7000 errepidean Orkoiengo saihebidetara egiteko kostua 502/1998 Ebazpenak aurreikusten zituen ezaugarri teknikoak balitu?

3.- Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentua zein epe eta egutegi darabiltza esku artean NA-7000 errepedean Orkoiengo saihesbidea egiteko?

4.- Nafarroako Gobernuko Industri Departamentuaren eta Herrilan Departamentuaren artean izan al dira edo badira ideia ezberdinak edo plan-teamendu kontraesankorrak azpiegitura horren

premiaren inguruan? Horrek exekuzioa atzeratzea edo geldiaraztea ekarri du?

5.- Zein datu du Nafarroako Gobernuak trafiko-ak Orkoiengo zeharbidean duen dentsitateaz eta industrialdeek bertan eragindako trafikoaz?

Iruñean, 2000ko apirilaren 4an.

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Errezuko arrain-haztegiaren aurkako zehapen espedientari buruzko gal-dera

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Euskal Herri-tarrok Parlamentuko Taldeak Errezuko arrain-haztegiaren aurkako zehapen espedientari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herriarrok Parlamentuko Taldeak, Par-lamentuko Erregelamenduan xedatuaren babese-an, hurrengo galdera egin du, Ingurugiro, Lurral-

dearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamen-tuak idatziz erantzuteko:

Deierriko Udalak zehapen espedientea abiarazi du Navarra Food enpresak Errezun –Ubagua ibaiko uretan– duen arrain-haztegiaren aurka.

Nafarroako Gobernua zer neurri ari da hartzen eta zer neurri hartzeko asmoa du Navarra Food enpresari ura arazteko exijitzen zaizkion neurri zuzentzaileak betetzen ez dituelako?

Ubagua ibaiko uraren eta ur-ingurunearen kalitateari kalte egiten al diote arrain-haztegiko lanek?

Iruñean, 2000ko apirilaren 6an

Bozeramailea: Joxe Fernando Barrena Arza



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--